

ttipi-ttapa

191. zenbakia • 1996ko urriak 10 • XV. urtea

6 Iritzia: **Baztan eta Malerrekako zaborrak Gongorara eramateko baimenik ez**

28 Berrogei pilotari lau terdiko txapelketan

Horien artean Berako Errandonea anaiak, Eratsungo Retegi, Goizuetako Salaberria eta Olaizola, Taberna Iesakarra eta Oronozko Goñi IIa.



27 TTAPI-TTAPA honekin batera **ETXETIK PLAZARA** aldizkaria

Ikasturte berriarekin Etxetik Plazara indarberritua heldu zaigu. Hilabetean behin TTAPI-TTAPAREkin batera banatuko da betiko moduan, eta gainera, Gure Irratia, Karrape, Aralar eta Xorroxin irratietan ere irratseaio bereziak hasiko dituzte.



Etorkizun bila trenbide zaharrentzat

Bidasoako Tre-na historiara pasatu zen. Baita Plazaolako ere, eta hauekin gure herrien aurrerapen ekonomiko eta sozialean garrantzia handia eduki zuten protagonistak.

Hala ere, beren arrastoak hortxe diraute; bidea bera, tunelak, zubiak, etxeak... eta ahal den neurrian hoiek guziak berreskuratzeko asmoa piztu da. Zentzu horrekin egin da Bi-

Bidasoako Trenari buruzko erakusketa eta hitzaldiekin, herritarren iritziak bildu nahi dira etorkizuna zehazteko

dasoako Trenbidea Berreskuratzeko Ikerketa, eta helburu horren barnean kokatu behar da Bertiz Partzuergo Turistikoak Gipuzkoako Burnibiaren Lagunen Elkartearen laguntzarekin herriz herri antolatu dituen erakusketa eta hitzaldiak.

ttipi-ttapa

Etxe xoko guzietan!!

HEDAPENARI BURUZKO DATU KONPARATIBOAK (1996/10/10)

	Diario de Navarra	EL DIARIO VASCO	egin	DEIA	Egunkaria	Noticias	SUDQUEST	ttipi-ttapa
BAZTANALDEA	394-542	81-109	81-115	7-7	25-27	131-185	0-0	1.552
Baztan ⁽¹⁾	361-509	81-109	77-109	7-7	25-27	125-185	0-0	1.377
Urdazubi	23-23	0-0	3-5	0-0	0-0	3-0	0-0	88
Zugarramurdi	10-10	0-0	1-1	0-0	0-0	0-0	0-0	87
BORTZIRIAK	147-211	646-854	153-200	11-12	44-49	63-70	0-0	1.941
Arantza	3-3	10-10	6-5	0-0	4-4	2-4	0-0	168
Bera	68-115	343-470	75-95	1-2	13-20	26-28	0-0	848
Etxalar	17-18	28-29	16-17	1-1	5-5	8-9	0-0	181
Igantzi	11-11	45-65	4-10	0-0	4-4	5-6	0-0	148
Lesaka	48-64	220-280	58-73	9-9	18-16	22-23	0-0	596
LEITZALDEA	83-169	103-150	94-165	3-3	17-23	29-29	0-0	956
Areso	8-9	0-0	6-0	0-0	0-0	0-0	0-0	56
Goizueta-Arano	0-0	35-55	26-90	0-0	8-10	2-2	0-0	249
Leitza	75-160	68-95	62-75	3-3	9-13	27-27	0-0	651
MALERREKA	230-401	112-168	51-68	1-3	14-13	58-65	0-0	1.207
Doneztebe	153-201	87-142	36-45	1-3	10-10	29-35	0-0	316
Ituren	0-0	0-0	8-12	0-0	1-1	0-0	0-0	118
Sunbilla	38-60	25-26	6-10	0-0	1-0	23-24	0-0	177
Herrietan ⁽²⁾	40-40	0-0	1-1	0-0	2-2	6-6	0-0	596
SARA	0-0	6-6	6-6	3-3	5-5	0-0	250-250	125

HEDAPENA ZENBAKITAN

Lehen kopurua asteguneko banaz bestekoari dagokio, bigarren kopurua igandetako banaz bestekoari.


DEIA	25 - 28
Egunkaria	105 - 117
SUDQUEST	250 - 250
Noticias	281 - 349
egin	385 - 554
EL DIARIO VASCO	948
Diario de Navarra	854
ttipi-ttapa	6.284 ⁽³⁾

Saltoki eta
posta
zerbitzutik
eskuratutako
datuen
arabera

⁽¹⁾ Baztango herri guzietako kopuruak batera emanak daude, korreoz hartzen direnak barne.

⁽²⁾ Malerreka eta Bertizaranako herri guzietako kopuruak batera daude, Doneztebe, Ituren eta Sunbilla izan ezik, korreoz hartzen direnak barne.

⁽³⁾ Harpidedun guziak, eskualdetik kanpokoak barne.



Goian, ezkerraldean, **Elizondo-ko Geltokia** ageri da, justu tren-irun aldera begira jartzeko momentuan ateria. Eskuineko argazkia Sunbillan ateria da, **Larrakaizko Tunelean**. Beheko erretratuan, berriz, **Alkaia-gako Geltokia** ageri da. Trenbidean automotrizo dago.



Bidasoako Trena gogoratu

Berrogei urtez ibili zen Bidasoako Trena Elizondo eta Irun arteko bidea eginez egunero lau aldiz, eta aurten, trenaren hasiera eta akaberaren urteurrenak beteko direla aitzaki gisa hartuz, Bertiz Partzuergo Turistikoak eta Gipuzkoako Burnibiaren Lagunen Elkarteak antolatuz, erakusketak eta hitzaldiak prestatu dira orain hasi eta abendu bitarte Lesaka, Sunbilla, Elizondo, Doneztebe, Bera eta Irunen. Herri bakoitzean 15 egunez egonen dira ikusgai trenarekin zerikusia duten materiale grafikoak, eta horrekin batera, pare bat hitzaldi ere emanen dira. Batetik Juan Jose Martinenak Tren honen historiaz arituko da, eta bestetik, Mikel Albisu trenbidearen oraingo egoeraz eta etorkizunerako egon litezkeen aukeretatik solastuko zaigu.

Otsailaren lehen laurogei urte bete ziren Bidasoako Trena Iruindik Elizondo aldera lehen aldiz abiatu zenetik. Harat honatean berrogei urte egin zituen 1956ko abenduaren 31n betiko gelditu arte. Bi gertaera horien urtemugak direla eta, Bertizko Partzuergo Turistikoak eta Gipuzkoako Burnibiaren Lagunen Elkarteak antolatuta erakusketa eta hitzaldi zikloa egingen da Tren Geltokia zuten herri nagusienetan (begiratu egunak 5. orrialdean), eta gai-


Ibilaldiak, erakusketak eta hitzaldiak egingen dira Lesaka, Sunbilla, Elizondo, Doneztebe, Bera eta Irunen.

nera, ibilaldiak ere antolatuko dira trenbidean barrena; oinez Baztanen eta bizikletaz Bortzirietan. Nafarroako Gobernuaren inplikazioa bilatu nahirik, bertalde, Donezteben ekitaldi ofiziala egingen da «eta bideak Sunbilla aldera duen egoera Legasa aldera duenarekin konparatzeko aprobeztatu dugu» diote antolatzaileek.

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIAK:
GIPUZKOAKO BURNIBIAREN LAGUNEN
ELKARTEAK UTZITAKOAK

Galdutako Trenbideak

- ❶ **Plazaolako Trena**
(Iruñea-Lasarte)
1914-1959 • 86 km. • 13 geltoki
- ❷ **Bidasoako Trena**
(Irun-Elizondo)
1916-1956 • 52 km. • 17 geltoki
- ❸ **Sarako Trena**
(Donibane Lohizune-Sara)
1924-1936 • 15 km.
- ❹ **Meatzal Trena**
(Oiarzun-Aiako Harria-Arditurri)
10 km.
- ❺ **Meatzal Trena**
(Oiarzun-Artikutza)
15,6 km.
- ❻ **Meatzal Trena**
(Irun-Irugarutzeta) Ibarria



1950eko hamarkadan, Sarakoa lehenagotik, automobil eta garapen modu berrien agerpenarekin tren konpainia aunitz itxi egin ziren. Euren arrastoa, ordea, ez da desagertu eta aukera ugari eskaintzen dute ikuspegi orokorra galdu gabe aprobeztamendu interesgarriak gauzatzeko.



Sarako Trena. (1924-1936) 'Tranways' gisa ezaguna, Santignazeko lepotik Sara alderat. Tren hau, berez Hendaiatik Baionara iragaiten zenaren adar bat zen, eta Saran, Portua jatetxearen ondoan zuen geltokia. Jendea eta merkantzia garraioan ibiltzen zen (ilea iletegitik eta igeltsua Elbarrun auzotik). Garai berean egin zen Larrungo Trena ere, 'Voies Ferrées Departementales du Midi'k kudeaturik.



Bidasoako Trena. (1948) Automotriz Igantziko Bentetan karretera gurutzatzeko puntuan.

HISTORIA

Herrietako ekonomian sekulako garrantzia

XIX. mendearen azken urteetan eta XX.aren lehenbizikoetan, Euskal Herriko giza eta ekonomi alorretan eragin garrantzitsua izan zuen trenak. Kasu gehienetan, meategietatik itsas portuetara burdina eramateko asmatu ziren. Goian dagoen mapan ikusiko dituzue Oiarzun eta Irun aldetik ireki zituztenak. Bidasoako Trenaren aitzindari izan zena ere –Irun eta Endarlatsa lotzen zituen meatzal tren– hortarako eraikia izan zen. Geroago, 1916an, Elizondoraino luzatu eta bidaiari eta merkantzia garraioan arituko

zen, eta berrogei urtez harat honatean ibili ondotik, 1956an, lineako autobusek eta tonelaia haundiko kamioiek bereganatu zuten oso-osorik aipatu eginkizunak, Bidasoako Trena betirako desagertaraziz. Hasierako bapore-lokomotoreak, –4 haundi eta 3 tikiagoak–, denborarekin, automotriz eta gasolina motorez hornitutako lokomotorez ordezkatuak izan ziren, eta hori, abiaduran igarri zen. Bapore trakzioaz 3 ordu inguruz burutzen bazen Elizondorainoko bidaia, 2 ordu eta 10 minutura beheratu zen denbora automotrizekin. Lau bidaia egiten zituen Bidasoako

Trenak egunero eta Elizondorainoko bidaia alderantzizkoa baino garestiagoa zen, maldan goiti gasolina gehiago erretzen baitzen. Plazaolako Trena Bidasoako baino bi urte lehenago jarri zen martxan eta hiru beranduago itxi, beste tren konpainien antzera honek ere automobilaren garapenari men egin ondotik. Gaur egun garai batean izandakoaren arrastoak baino ez dira gelditzen han eta hemen, eta administrazio publikoak hasiak dira bideen probetxamendua bilatzeko proiektuak egiten. Ea ikuspegi orokorra kontuan hartuz egiten diren.

ERAKUSKETAK

Herriak

LESAKA	Urriaren 1etik	Urriaren 13ra
SUNBILLA	Urriaren 14tik	Urriaren 27ra
ELIZONDO	Azaroaren 1etik	Azaroaren 14ra
DONEZTEBE	Azaroaren 18tik	Abenduaren 3ra
BERA	Abenduaren 6tik	Abenduaren 22ra
IRUN	Zehaztu gabe	Zehaztu gabe

HITZALDIAK

Herriak	Historia	Gaurko Egoera
LESAKA	Urriaren 4an	Urriaren 11n
SUNBILLA	Ez da	Urriaren 25ean
ELIZONDO	Urriaren 30ean	Azaroaren 8an
DONEZTEBE	Azaroaren 22an	Azaroaren 29an
BERA	Ez da	Abenduaren 20an
IRUN	Zehaztu gabe	Zehaztu gabe

HIZLARIAK:

Historiaz: Juan Jose MARTINENA
Gaurko Egoeraz: Mikel ALBISU



a. 1900 inguruan. Meza, tren, Karabineroak...



Ikuspegi orokorra



nea esperoan trenean sartzeko.



Elizondoko ikuspegia. Behetian tren eta geltokia. Hasieran, bapore-makinarekin, Irundik Elizondora ailegatzeko 3 ordu inguru behar ziren. Automotrizekin 2 ordu eta 10 minutu nahikoak ziren. Egunean 4 bidai egiten zituen Bidasoako Trenak. Bidaiariez gain, posta, zura, ikatza eta azindak garraiatzen zituen.



Lekarozko ikasleak. Erretratua Legasa inguruetan ateria omen da.

Bidasoako Trenaren bidea berreskuratzeko ikerketa egina dago, eta orain, herritar eta udalek dute azken hitza



Mikel ALBISU

Bidasoako Trenbidea berreskuratzeko ikerketaren egilea eta «Orbela»ko kidea.

Berreskurapenari dagokionez, egoera ez da berdina eskualde guzietan. Gipuzkoan hirutik bi pribatua da; egoerarik hobere- na Bortzirietan dago, Berako saihesbidea kenduta; Malerre-

kan, Sunbillatik Doneztebera arras ongi, baina Doneztebetik goiti ez; Baztanen, denetarik dago, eta Elizondoko sarreraren dena galdua dago. Dena dela, erran

behar da bide historikoa berreskuratzeko bere osotasunean, baina aurreproiektuan planteatzen diren bide alternatiboekin, Behobiatik Elizondora bide zabal eta zelaia egiten ahal dela, eta dituen baliabide kultural eta paisajistikoez gain, kirola eta turismorako aprobetxagarria dela. Berreskuratze lanak, ordea, proiektu sakon eta zehatza egitea eskatzen du, eta guttienez, honako puntu hauek kontutan hartu beharko ziren: bidearen publikotasuna; bidearen ego-

kitzea (zolaberritu, tunelak argitu...); Trenbideko etxeak berreskuratzeko proiektuak egitea; kirol eta atseden lekuak gauzatzeko proiektuak zehaztea, eta azkenik, arlo historikoa, kulturala, biologikoa eta paisajistikoa kontutan hartuz proiektu osoa dinamizatuko lukeen egoitza moldatzea (Aran-tza-Igantziko geltokia egokia izanen zen). Erakusketa eta hitzaldiekin herritar eta udalen arreta eta inplikazioa indartzea espero dugu.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.300 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa ke

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA

Tfnoa: 63 11 88

Faxa: 63 12 91

Internet:

<http://www.encomix.es/ttpi-ttapa>

e-mail:

ttpi@encomix.es

e-mail:

ttpi@mail.sendanet.es

zuzendaria: Joxemanuel Iri-
goien. **Publizitatea:** Miren Kar-
nele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
Arozena, Joxemanuel Irigoien.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzio taldea: Pello Ape-
zetxea, Juinas Paul, Kristina Bo-
an, Bittori Telletxea. **Berri-**

maileak: Joseba Azpiroz, Este-
an Arozena, Juana Mari Saizar,
Iñigo Mutuberria, Iban Isasi,

Exema Aldabe, Patxi Otxandore-
a, Ixabel Maia, Josune Etxe-
este, Pablo Mendiburu, Joseba

Marabide, Alizia Olaiola, Mar-
tari Etxenike, Koro Irazoki, Mi-
kel Gerendiain, Jacqueline, Eli-
sabet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-
kar Txoperena, Pello Apezetxea,

Aitor Arozena, Kristina Boan.

kolaboratzaileak: EHNE Nafa-
roa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-
ter Etxeberria...

primategia: Graficas Ona.

tipi-ttapak ez du bere gain har-
ren derrigorrez, aldizkarian adie-
zitatiko erranen eta eritzien eran-
tzukizunik.

arakunde Laguntzaileak: Be-
a, Leitz, Goizueta, Areso, Baz-
an, Urdazubi, Zugarramurdi eta

arako udalak, Bortzirietako Eus-
tara Mankomunitatea, Malerre-
ako Zerbitzu Mankomunitatea,

Zugarramurdiko Akelarre Elkar-
ea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Baztan-Malerrekako zaborrak Iruñerrira eramateko baimenik ez

Nafarroako Hondakinen Plan Orokorra argitu beharko du onarpena



Miguel IZU
Iruñerriko Mankomunitat.

Iruñerriko Man-
komunitateko
Batzorde Iraun-
korrean Baztanek

eta Malerrekako Mankomunitateak egindako eskariak aztertu eta ezezkua ematea erabaki genuen. Kontuan hartu behar da 1992an Iruñerriko Zaborte-gia Gongoran zabaldu zenean erabaki zela garai hartan Mankomunitate honetako partaide ez ziren herrietako zaborrak hartzeko topea jartzea, % 5a, eta gaur egun tope hori gainditua dago Ultzama, Leitz eta Bidasiko Mankomunitateko zaborrak ere biltzen direlako.

Tope hori, dena den, gobernua alda dezake, baina momentuz Nafarroako Hondakinen Plan Orokorra onartu gabe dagoenez, ez dugu bidezkoa ikusi topea guk haustea. Plan Orokorra zonak aldatzea onartuko balu, orduan ikusiko zen, baina bitartean ez. Plana onartzeak, bestalde, baditu ondorio politiko garbiak, eta gauzak ez daude batere garbi. Hondakinen afera guzi hauetan gertatzen den bezala, eztabaidak polemika handia ekarriko du eta Nafarroako Gobernuari dago-ko bidea markatzea.

Bitarteko soluzioa bilatzea Nafarroako Gobernuari dagokio



Miguel SAN MIGUEL
Donezlebeko alkatea

Gaurgoizean ber-
tan (96.10.08) hi-
tzezin dut Alber-
to Otamendire-

kin, Ingurugiro Departamentu-ko zuzendariarekin, eta berak erran didanez, Nafarroako Gobernuan bilera bat egin eta afera baloratu zain daude. Hortaz, lehenik balorazioa egingen dute eta gero, posibilitate guztiak agortu baino lehen, berriro Iruñerriko Mankomunitatekoekin hitzegiteko asmoa omen dute. Hori dena egin ondotik, gurekin hitzegitera etorriko omen dira, Baztan, Bortziriki eta Malerrekakoekin.

Hala eta guztiz, nire iritziz Baztanen eta Malerrekaren ezin du-
gu gauden egoeran segitu, Nafarroako Hondakinen Plan Orokorra onartu arte esperoan. Soluzioa oraintxe bertan eman behar zaio arazo honi, eta soluzioa bilatzea gure kompetentzien gainetik dagoenez, Nafarroako Gobernuari dagokio Plan Orokorra onartu bitartean bederen, gure arazoari soluzioa bilatzea.

Orain arte egin dena baino sakonago aztertu behar dira aterabideak



Jose R. MASFERRER
'Ecolan' enpresakoa

Joan den udabe-
rrian eta alterna-
tiba desberdinak
aztertu ondotik

Baztango udalak eta Bortziriki eta Malerrekako Mankomunitateek Transferentzia Plantaren aldeko apostua egin zuten, eta orduan erabaki zen Iruñerriko Mankomunitateari eskaera egitea. Egia erran, nire ustez gehiegi aztertu gabe hartutako erabakia izan zen. Sakonago aztertu izan balitz, beharbada, bertze soluzioren bat topatuko zen, egingarriagoa, baina tira...

Hemendik aitzinera zer? Ba, lehen lehenik gauzak sakonago aztertu beharko dira. Kontua ez da harekin eta honekin hitzegitea, azterketa serioa egitea baizik. Hortarako lehenbailehen bildu beharko genuen teknikoak eta udal ordezkariak. Guk posibilitate desberdin ugari aztertu ditugu, eta horien artean dago bilketa selektiboa egin, hondakin organikoak bereizi eta hemen bertan konpostatzen has-
tea, eta gero, Karkarrera eramatea prozesua bukatzeko, handik aterabide merkatal hobek izanzen baititu.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egutero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittoria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta

BOTA BERTSOA

Idoia Mariezkurrena atletari

Tomas OTXANDORENA^k idatziak

Labaingo bitxi eder
atleta Idoia,
nahiko teknika eta
ugari sasoi:
jabalina kirolan
jaurtilari goia,
hurren Olinpiadan
paz eta kororia.

Malagatik ekarri
urrezko domina,
zuk egin Espainian
markarik onena:
zure merituz zera
gaurko txapelduna:
zer edo zer iristen
saiatutzen denak.

Zeurea Nafarrako
marka errekorra,
benetan izaki ba,
pertsonea bizkorra:
erne-erne jokatzu
aurkitu altxorra,
ez lokartu, jarraitu
izanez jatorra.

Omenaldi polita
Labaingo Udalak:
lore xorta fin-fina,
bitxia ta plaka:
herriaren emaitzak
ta txalo zabalak,
dantzarien agurra
ta fandango aztalak.

Bihotz bihotzetik gaur
zorionak zuri,
gogoz jarrai aurrera
ekar frutu ugari:
kirolaria beti
segi kirolari,
iraupen onez ekin
zuk jabalinari.

Posta elektronikoaren
bitartez hartuak

Kanadatik...:

Ondo! Lan ona! my written basque ability is poor but I'm sure some one there speaks english. A good job on the ino you have provided. I have read the hard cover of your magazine a few times when one of my cousins or uncles comes back from a trip to Baztan. My cousin Jose Miguel Etchart brought one back this spring. We live in British Columbia Canada. But my father is from Amaiur and my mother a Mihura grew up in Arizkun. I'm going to make copies of this so my extended family in Canada can catch up on news here... Gero arte.

DAVID MARITORENA MIHURA

...eta Estatu
Batuetatik:

Egun on: Mezu bat bidaltzea pentsatu dut, zuen aldizkari zoragarria irakurtzeko aukera izan dudalako eta eskerrak emateko. Orain urte batzuk, Lesakan eta Beran pasatu nuen denbora eta TTIPI-TTAPA beti irakurtzen nuen. Aunitz maite dut eta hor (Bortzirietan behintzat) toki guzietan aurkitzen denez gero, han egona naizela berriz sentitzen naiz. Hemen EEBB-etan ez dugu aukera hori izan hain hurbil, baina orain, berriz, badugu aukera TTIPI-TTAPA ira-

IRAKURLEAK MINTZO

kurtzeko INTERNETEN bidez zuen lan zoragarriari esker. Milesker, benetan, bihotz-bihotzetik.

KRISTOBAL :)
NEVADAKO IRAKURLE BAT...


«Arantxen» eguna

Agur terdi TTIPI-TTAPA:
Gutun hau idazten dizuegu, urriaren 19an Arantzazun egingo den ekintza baten berri emateko. Izan ere, urriaren 19an Arantzazun, Euskal Herriko Arantxa izeneko emakume guztiak bildu nahi dituen erromesaldiaren antolaketa martxan da. Ez da lan erraza izango. Izan ere, milaka eta milaka gara Euskal Herrian izen hori dugunak. Guztioi, erromesaldi honen antolatzaile diren Arantzazuko fraileak eta antolaketan lanetan dabilen Arantxa

izeneko emakume batzuk gutun bana bidali berri digute etxera, aipatu erromesaldirako gonbitea eginez.

Hala ere, erromesaldi honek arrakasta polita lor dezan, garrantzitsua da oso komunikabideetan beronen berri ematea. Seguruaskien zuen eskualdean ere, **Arantxa, Arantza, Arantzazu...** ugari egongo dira, eta faborez erabili ezazue zuen komunikabidea ekimen honi buruzko informazioa izan dezaten eta erromesaldira joan daitezen. Gainera, zera, autobus zerbitzua ere atondu dute antolatzaileek, begira ezazue ondo zein ordutan igaroko den zuen herriatik autobusa eta faborez eman ezazue horren berri. Zuen herriko Arantxa, Arantza eta Arantzazu guztiek biziki estimatuko dute. Hori bai, ahal baduzue faborez eman ezazue honen guztiaren berri **urriaren 11a** baino lehen, egun horretan amaitzen baita izen emateko epea. Ah! Izena emateko eta edozein argibide eskatzeko hona hemen antolatzaile lanetan dabilen bi Arantxaren telefonoak: 943-781304 eta 781302. Beno ba, mila esker eta eutsi lanerako gogoari.

«ARANTXEN» BATZORDEA



zabal
ostatu

LESAKA



Tel.: 450 133

451 541

Faxa: 450 334

DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Alfredo ZUGARRAMURDI Doneztebeko zinegotzia

Malerreka bere eskola etorkizunaren aurrean



Eskola eta hezkuntza-zen egoera DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, E.S.O. deritzana) indarrean jarri den ezkerotik guztiz aldatu dela inork ez du zalantzan jartzen. Eta hemendik aurrera Hezkuntza agintariak ildo beretik jarraituko dute. Horregatik, Donezteben eta zonaldean sortu daitekeen arazoari, hots, ikastetxea zabaltzeko premiari, ze nolako apatiaz, utzikieriaz edo interes faltaz aurre egiten zaion harriturik nago.

Jakin badakigu ikasgelez gain gure haur eta gazte txoek aisialdirako esparruak eta kirol guneak behar dituztela. Orain nahi-

kuntza agintariak gure ikastetxeak beharrezkoak diren baldintzak ez dituela betetzen erabakitzea eta gure haurrek 12 urterekin Lekarotzera joan behar izatea.

Baten batek "holakorik ez da gertatuko, gizon honen irudimena bertzerik ez da eta" erranen du, baina uholdea izan eta gero urtegiak egiteko ohitura txarra omen daukagu eta batez ere, zuzenki dagozkigun gauzetan. Esaera zaharrak dioen bezala: "Usorak joan, sarea heda".

Laburbilduz, Doneztebeko Zonaldeko Eskolak duen leku falta gero eta larriagoa da, bere inguruan eraikitzen ari baitira. Horregatik, arazoari aurre egiten ez bazaio eta inguruko lurak ez badira erosten gure eskola itota eta zabaltzeko aukerarik gabe geratuko da.

Urteak eta urteak eman ditut gai honi ekiten baina badirudirik errandakoa alferrik dela. Dirudienez gurasoek, gurasoen ordezkariak, zinegotziak eta Udalak ez diote gaiari kasu haundirik egiten. Ni izanen naiz, agian, ametsetan dagoena eta eskolaren inguruan ez da eraikuntza berririk sortzen

ari! Edo ni izanen naiz, agian, eskolara joateko adina duten seme-alabarik duen bakarra!

Hor dago arazoa eta hor irtenbidea. Arazoari aurre egitean edo ez egitean dago gure seme-alaben hezkuntzaren etorkizuna.

Doneztebeko Zonaldeko

Eskolak duen leku falta

gero eta larriagoa da bere

inguruan eraikitzen ari

baitira. Inguruko lurak ez

badira erosten gure eskola

itota eta zabaltzeko

aukerarik gabe geldituko

da.

ko leku dagoela erranen duenik ez da faltako, baina nik ezetz erraten dut; dagoen lekua gutxiegi da, gure seme-alabak 16 urte bete arte Zonaldeko Eskolan egotea nahi baldin badugu, behintzat. Bali-teke, egunen batean Hez-

Antonio APEZETXEA Goizuetan

Nafarroako basogintza politikari buruz



Nafarroak baso azalera handia du, baita landatzeko egokiak diren eremu huts ugari.

Honek Nafarroako Gobernutik ongi zuzendutako basogintza politika arduratsua eskatzen du. 1956an, orduko Diputazioak basogintza politika serio bati ekin zion, giza eta ekonomia baliabideak erabiliz eta enpresa Foru Administrazioetik gogo handiz antolatuz. Konpetentzi handiko jendea jarri zuten Mendi Zuzendaritzarako lanean eta Nafarroako mendietan aberastasun handia sortu zuten. Mendietan iratzeaz

gain arbolak ere izan zitezten lan gogorra egin zen Nafarroako Jauregitik, beti ere Udalekin elkarlanean. Kontuan hartu behar da udal askorentzat diru iturri nagusia dela basoa eta interes handiena horretan jarri behar da. Azken 20 urteotan, ordea, interes falta nabarmena somatu da Nafarroako basogintza politikan, gobernu ezberdinek bigarren mailan utzi baitute Mendi Zuzendaritzaren lana. Nafarroak baso aberastasuna izatea nahi badugu plangintza serio bat egin behar da puntu hauek kontuan hartuz:

1.- Nafarroako Gobernuaren organigraman egon behar du Mendi Zuzendaritza Sailak, beti egon den bezala. Hiruko

Gobernuak ordea, Ingarugiro sailan sartu du.

2.- Bulegoak ongi antolatu behar dira, aberastasuna sortzeko plangintza bat egin dadin; zeladore eta subzeladore multzo handi bat Mendi Zuzendaritzarekin elkarlanean jarri; saileko teknikariak herrietako lur eremuak 'in situ' ezagutu behar dituzte.

3.- Lan honetarako beharrezkoak diren baliabide

Azken hogei urteotan

interes falta nabarmena

somatu da Nafarroako

basogintza politikan,

gobernu ezberdinek

bigarren mailan utzi

baitute Mendi

Zuzendaritza sailaren lana.

ekonomikoak eskura jarri behar dira.

4.- Lan hau egokiago antolatzeko eta bultzatzeko Udalekin koordinatzea nahitaezkoa da.

5.- Lur partikularretan ere baso berritzeak bultzatu behar dira subentzioak emanez.

6.- Nafarroako Gobernuan sail berezi bat sortu, lurrak aztertu eta egin beharreko baso berritzeak orientatzeko eta landatu beharreko espezieak zein diren estudiantzeko: udal ekonomia laguntzeko hazkunde azkarrekoak, eta garai batean izan ziren basoak berreskuratzeko bertako espezieak. Udalek presioa egin behar diote Nafarroako Gobernuari proiektuak arrakasta izan dezan.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias 96-X-4

«Badirudi enpresari gai ekonomikoa besterik ez zaiola inporta, baina nik izen bat daukat eta Balentziako omenaldira garantiekin joan behar dut».

Julian RETEGI
Eratsungo pilotaria.
Diario de Noticias 96-X-4

«Denbora gutxi daramat profesional bezala, baina oso gustora nago. Hasieran kostu egiten da adaptatzea, baina bide onetik noala uste dut».

Asier OLAIZOLA
Goizuetako pilotaria.
Diario de Noticias 96-X-4

◆ Oñati edo Zubieta?

❖ Txantxikuak (Igelak) bezala, putzu batetik bestera.

◆ Hik ikusitako tokirik politena?

❖ Politenen artean Titicaca uhartea (Bolivia).

◆ Hizkuntzak ikasteko eta erakusteko metodorik onena?

❖ Lehenengoa komunikatzeko gogoia izatea.

◆ Hurrengandik zer ikasi behar dugu?

❖ Bat-batekotasuna edo espontaneitatea eta inozentzia.

◆ Hurrei hik zer erakutsi nahi diek?

❖ Mundu honetan inor izorratu gabe ahal den zorionsuena izatea.

◆ Liburu bat eta abesti bat?

❖ Julio Villarealen «Eh, Petrel» eta kanta Mikel Laboaren «Izarren hautsa».

◆ Ile luzea edukitzeagatik bi langile kanporatuak...

❖ Nagusiari pelukin bat oparitu.

◆ Mundu honetan zer aldatuko huke?

❖ Boteretsuen intsolidaritatea.

◆ Jateko, arrainkia edo haragia?

❖ Arrainki freskoa.

◆ Telebista edo telefonoa?

❖ Txalaparta.

◆ Ingelesa zertarako?


❖ Bizitzan beste tresna bat izateko eta bakoitzak emanen dio bere erabilera.

◆ Eskola unitarioak edo konzentrazioak?

❖ Unitarioak, dudarik gabe.

◆ Zer egin arratsalde libre batean?

❖ Kanguro bat izanda, hamaka batean liburu bat irakurri.



Mikel GEREKA
Maisua, Zubieta

DROGUERIA MOLINERO



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA

AHORRO-BERRI

janaridenda

Legia 4 • BERA

Igande
goizetan
irekia

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63



CSI-Transformados lantegiko Enpresa Batzordeko 23 kideetatik 21ek euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatu dute

Presoen sakabanatzea salatu du CSI lantegiko Enpresa Batzordeak

ELA, LAB, ESK eta CCOO-k sinatu dute idatzia

“Euskal preso politikoaren sakabanatze politika salatu eta berehala amaitzeko” eskatu du Lesakako CSI-Transformados lantegiko Enpresa Batzordeak. Erabaki honek batzordearen gehien goaren aldeko botua jasozuen, ELA, LAB, ESK-CUIS eta CCOO-sibndikatuetako orde-

kariek eskakizunaren alde agertu baitziren. Kuadroen Konfederazioko bi kideak abstenitu ziren.

Idatziak “nahi duten euskal preso guztiak, sozialak eta politikoak, lehenbaitlehen Euskal Herrira ekartzea” eskatzen zuen, “elkarbizitzeko baldintza duinak izan de-

zaten”. Enpresa batzordeak eskakizun hauek aurrera ateratzeko beharrezkoak diren medioak praktikan jarri eta erabaki politikoak har ditzaten eskatu die botere publikoei eta “gizaki orori bezalaxe, dagozkien oinarriko eskubideen aplikazio integrala” exijitu dute.

Langabetu gazteentzat ‘Herri garapen eta enplegua’ri buruzko ikastaroa antolatu du EHNEk

EHNEk «Nekazaritza guneetako garapena eta enplegua»ri buruzko kurtsoa antolatu du langabezian dauden gazteentzat. Baserritarren seme-alabei eta herrietan bizi direnei emanen diete lehenbaitlehen. Ikasle kopurua hogeita hamarrekoa izanen da eta Iruñean burutuko da urriaren 14tik 31ra. Langabetuek 25 urtetik behetik izan behar dute edota, 25 eta 29 urte bitartekoak badira, iraupen luzeko langabetuak.

Kurtsoa, batez ere praktikoa izanen da eta bortz egunetan bidaiak eginen dira, landa-lurraldeetan garapen esperientzia interesgarriak ezagutzeko helburuarekin. Helburu garrantzitsuenetako informazioa eskaintzea eta nekazaritzarekin harremana duten hainbat gai

garatzea izanen da: ingurugiroa, kalitatea eta komertzializazioa, garapen lokala, landa turismoa, etabar...; bidaien bidez gaiak osatuko dituzte.

Espainiako Nekazaritza Ministeritzak diruz lagunduko du kurtsoaren zati handi bat Europako komunitatearekin batera.

Bertze hainbat gastu-dokumentazioa, irakaslegoa, bidaiak, janariak eta gisakoak-antolatzaileek ordainduko dituzte; ikasleek diru kopuru tiki bat ordaindu beharko dute matrikula gisara. Kurtsoaren bukaeran, berriz, diploma ofizialak banatuko dira. Interesatuta dauden guztiak edota informazio gehiago nahi duenak 254841 telefonora (Mirian) deitu behar du.



Dia  **Autozerbitzua deskontua**

Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA


KIROLAK ZELA
Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 630 031 • BERA

F. MARITORENA
 **Mendi eta lorategi garbiketak**
Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA

Jose Luis Telletxea Portugaldik ez kanporatzeko eskatu du Udalak

Irailaren 24an epaitu zuten Lisboan

KRISTINA BOAN

Irailaren 24an epaitu zuten Jose Luis Telletxea Maia beratarra Lisboako epaitegian eta zazpi hilabeteko gartzela zigorra ezarri diote -horietatik sei betek-, bertze baten dokumentazioa erabiltzeagatik. Portugaldik Estatu espainolera bidaltzeko arriskua zegoelata, Jose Luisek gose greba egin zuen hamabortz egunez, sententzia jakin artean.

Herriko Etxean ere gai honetaz aritu izan dira eta Telletxea bidaltzearen aurkako jarrerara azaldu dute ahobatez. Mozioaren arabera, "gure laguna Estatu espainolaren indar errepresiboen eskuetan uzteak, bere eskubideak zanpatzea da". Eraberean, "neurri horrek



Hainbat senide eta lagun hurbildu zen Lisboara, Joxe Luisen epaiketan egoteko

oztopo bat gehiago suposatuko du Euskal Herrian bizi dugun gatazka politiko honetan eta sufrimendu gehiago eraginen du" udalaren ustez.

Akordio hau Portu-

galeko Barne Ministeritzari igorri zaio eta bidaltze hau gauzatu ez dadin Herriko Etxeak Portugaleko estatuaren aitzinean ahal dituen gestioak egiteko konpromezua hartu zuen.



Organo kontzertuak ematen ari dira San Esteban elizan

Iaz mendea bete ondotik zaharberritu dute Berako elizako organoa eta zenbait kon-

zertu ematen ari dira. Joan den igandean Jean Pierre Lecaudey organojolea aritu zen eta

igande honetan, urriak 13, Jose Ignacio Martinez Zabaletaren txanda izanen da. Emanaldia eguerdiko 12,45etan hasiko du. Organoaren egilea

Aquilino Amezua izan zen eta zaharberritzeaz arduratu direnak Hernaniko Usabiaga anaiak. Aintzinako egitura mantenduz mekanika errebisatu dute.



Udal zergak ordaintzeko epea

Irailaren 26tik azaroaren 8a arte zabaldua dago 1996ko bigarren hiruhilabeteko uraren ordain-agiria ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, ordain-agiri hauek exekutibo bidez kobratuko dira, premiamendu errenergia, atzerapen interesak eta gerta daitezkeen bertze gastuak gehituta.

Berako Kultur Egunak

Urriaren 10ean, ortzeguna, arratsaldeko 7,30etan Iamotenean "Euskararen historia Nafarroan" solasaldia emanen du Mikel Zalbidetik. Urriaren 11n, ortzitala, gaueko 10etan bertso saioa Kultur Etxean; Maddalen Lujanbio, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta Iratxe Ibarra. Gai-jartzailea Andoni Egaña izanen da. Ekitaldiak Berako Euskara Batzordeak antolatu ditu.

ZALAIN
J A T E T X E A
EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA


Boda eta banketeak ematen dira

SAROB
okindegia 

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA


LABE ZAR
© 631076 • BERA

Zure ingurua klase guzitako inektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua


BERA
DESINFECCIONES
© 63 01 55
BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

LESAKA

Personaia

Bittiria karrikako zoladura lanak ia 33 milioi gostako dira

Espaloiak zabaltzeko edo berriak egiteko lurrak erosi ditu udalak

AITOR AROZENA

32.708.460 pezeta-ko aurrekontua izanen dute Bittiria karrikako zolaberritze lanek. Zazpi enpresek aurkeztu zuten beraien proposamena, bortzek bete zituzten udalaren baldintzak eta horien artean Cascanteko Madomic, S.L. izan zen merkeena: lehen fasea 9.312.884 pezeta eta bigarrena 23.395.576 pezetaren truke ginen ditu.

Alkateak erran zenez, lehen fasea egiteko Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazio sailaren subentzioa erabat baieztatu gabe badago ere, lanak adjudikatzea premiazkoa zen, bigarren fasea subentzionatuko duen Europako Elkarteak ezarritako plazoak dira eta.

Bittiria karrikako zolaberritze lanen barnean, espaloiak zabaltzeko edo berriak egiteko zenbait lur erosi ditu udalak 408.700 pezeta ordainduz.



Euskal Herriko Marmitako txapelketa

Irailaren 29an burutu zen Lizarrako zelaietan Euskal Herriko marmitako txapelketaren hemeretzigarren edizioa. 127 bikoteren artean Lesakako hiru zeuden: Eguzki elkartearen izenean Fermin Etxarte eta Tomas Maia, Basurde elkartearen izenean Dionisio Arriola eta Patxi Oteiza eta Arkupe elkartearen izenean Periko Maia eta Fermin Erbiti.

Alkaiagako industrialdeko karririkak

Lesakako leku-ize-riak izanen dituzte Alkaiaga industrialdeko zazpi karririkak: Banarta, Baldrun, Elutxa, Sastrin, Alasta, Ziobi eta Burnaizi izanen dira.

Ikastaro bereziak antolatu ditu euskaltegiak

Bortziritako euskaltegiak (IKA), EGA, hitanoa, literatura eta geografia eta historia ikastaroak antolatu ditu. Izen emateko deitu abudo 637796 telefonora.

Istripu larria Tomasenekobordan

Miguel Mutuberria 48 urteko saldiastarra urriaren 2an hil zen Tomasenekobordako bidegurutzean izandako auto istripuan. Bertze lagun bat arinki zauritua suertatu zen.

«Trikitixarako zaletasun gehiago dago»

Izaro Ansa aranoarra panderoa jotzen lagun zuela irabazi berri du Nafarroako trikitilari txapelketa Jone Elgorriaga lesakarrak. Orain arteko hiru edizioetan parte hartu badu ere, "aurtengoan inoiz baino nerbiosago" zegoela onartzen du 18 urteko trikitilariak.

Espero zenuten txapelketa irabaztea?

Kanporaketetan bigarrenak gelditu ginen eta esperantza bagenuen. Halere, azken puntuaziora arte ez zegoen garbi.

Gerora begira, zein asmo dituzu?

Bertze urte batez behinpin txapelketan aterako naiz. Bertzalde, Izaro eta Igonerekin batera talde bat osatua daukagu eta erromeriaz erromeria ibiltzen gara.

Trikiti irakaslea ere bazara. Nolako etorkizuna ikusten duzu?

Lau urtez ari naiz klaseak ematen eta lehen baino zaletasun gehiago dago. Ikasle mordoxka ari dira trikitixa jotzen ikasten.



Jone ELGORRIAGA

XATURETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

IRU BIDE

ERRETEGIA
 Tfnoa: 637127
LESAKA

LEGARRA
 Legarrea, 9 • ☎ 63 70 30 • LESAKA

IKASTURTE HASIERAKO ESKAINTZAK

• Espiral koaderno 80 orri	210 Pta.	175 Pta.
• 'Honer' txirula	1.300 Pta.	1.130 Pta.
• DIN A-4 orri xuriak	250 Pta.	210 Pta.
• 500 orriko paketea	850 Pta.	675 Pta.
• Pilot boligrafoa	275 Pta.	250 Pta.
• Pentel boligrafoa	150 Pta.	135 Pta.
• 16 uztaiko orrien errekanb.	250 Pta.	210 Pta.
• 180 orriko Note-book koad.	975 Pta.	750 Pta.
• Daimon koad.azal gogorra	340 Pta.	325 Pta.
• 5 metroko forrua	225 Pta.	175 Pta.
• Erregela multzoa	475 Pta.	350 Pta.
• AZ artxibadorea kajarekin	525 Pta.	425 Pta.

LANCHAS

 • Parketak - Tarimak
 • Kutxillatzea eta bernizatzeak
 • Estaldura Orokorrak
 Bera ☎ 630735
 Irun ☎ (943) 622305

ETXALAR

Urriaren 20an Usategietako igandea ospatuko da

Larunbat gaueko kontzertuak emanen dio sarrera

PELLO APEZETXEA

Urriaren hirugarren igandea usategien aitzaki eta izenarekin egun berezia izaten da Etxalarren. Urriaren lehen egunetik hasi den sareko ehizaldi bereziak egunero, eta batez ere, igande guziz ekartzen du jendea. Hala ere, hirugarren igandea da nagusi, nahiz eta aintzineko gauak zenbait bisitari aintzinarazten duen. Egund berezia denez, ekitaldi bereziak ere eskeintzen dira, Udalbatzak prestatuak. Aurten Lesakako Tantarumairu Dantza Taldearen saioa izanen dugu ikusgai, arratsaldeko 5,30etan. Ondoren, berriz, Egan Berriak alaituko du plaza bere musikaz.

Larunbat arratsean kontzertua izanen da,



Santa Krutz Eguna joan bezain laister hasi dira herritarrak ermitako paret zaharren zartadura berrizatzen. Kanpotik, oraingo. Gero barrengoari ere ekinen zaio. Asmoak hala dira behinik behin Pello

10,30etan hasi eta, Potato, Koma eta JFK taldeen eskutik. Ondotik, 2etatik 6ak arteko Berbena orduak Urrats taldeak beteko ditu. Kontzerturako plaza i-

txiko da, eta plaza banean nahiz kanpoan osatua antolatuko dute gazteek, eurak baitira gau horretako ekitaldien antolatzaileak. Larunbatean eta igan-

dean bertze ekitaldia ere bada, Mikel Laboaren erakusketa, Kultur Zurkaitza elkarteak bultzatua. Mikel Laboaren diska azalak, kantuen letrak, hainbat



❖ **Antsolokuetako karrika zola**

Santsiñenetik Argartaraino moldatu eta breaztatuko da. Lehenagotik, ordea, argindar eta telefonor hariak lurperatuko dituzte. Etxeko fatxadek eskertuko dute. Lanak Joakin Iturriak eginen ditu.

❖ **Herria edertzeko**

lanez nor arduratuko den, ondoko egunetan erabakiko du udalbatzak.

❖ **Sara-Etxalar topaketa**

aurten Etxalarren gauzatuko da, azaroaren 2an.

urtez argitaratu eta erabilitako kartelak ikusi ahal izanen dira eskola zaharretan. Larunbatez, 5etatik 7etara. Igandez, 12,30etatik 2etara eta 5etatik 8etara.

TXIRULA
Albistur, 39-K • 627542 • LESAKA
bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

Errekalde ostatua
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630259 - BERA

« **USOA** »
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

koxkonta

Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia
Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

ETXALARKO HERRIKO OSTATUA
635290

Udazkeneko Menu berezia
Aza pastela odolkiz beteaz pikillo eta bertako ilar-saltsan
Onddo nahaskia
Etxalarko usoa
Orein eskalopinak masusta saltsan
Gaztain pastela
Errioxa ardoa, ojaia eta kafea
2.900 Pta.

IGANTZI


Eguraldiak lagunduta, besta zoragarriak izan dira aurtengoak

Aspaldiko partez, besta batzordeak antolatutako egitarau osoa bete ahal izan da

OSKAR TXOPERENA

Hain besta ederrak joan eta gauza guztiak hain ongi ateraz gero, zaila egiten da aurtengo bestetako zerbait azpimarratzea. Aintzinetik prestatutako ekitaldiak egin ahal izan dira eta hori, berez, aipatzeko berria dugu Igantziko bestetan. Egia osoa erraketotan, bezpera egunekoak euripean atera ziren aitzinera, baina azer nolako eguraldiak hurrengoak!

Pilota partiduak, dantzak, herri kirolak, betizuak (baten bat mendian ibili bazen ere), pottokak, haur jokoak, zikiro jatea, bertsolariak, musika... denak hagitz ongi atera dira. Halere, gogoratu behar hemen ere, bestetan gauza guzti hauek gozatzeko norbaitek lan egin be-



laz ez bezala, herriko haurrek ere gozatzeko modua izan dute bestetan, begira bertzela nola ibili ziren azkeneko egunean pottoketan

har izan duela. Herritar horiei eskerrak eta ea heldu den urtean maila berdintzen duten.

Urrezko Ezteiak

Argentinan bizi den Miguel Lizardi igantziarraren berri izan du-

gu azken egunotan. Gure irakurle fin honen urrezko ezteiak aipatu gabe utzi ditugu nonbait. Zaila da, horrelako informazioa gureganatzea, familikoren baten eskutik ez bada behinpein. Errana gelditzen

da, beraz, eta ez dugu aukera utziko Argentina aldera besarkada bat bidali gabe.

Kultur Egunak

Aitzinduak daude da-goeneko Euskara Batzordearen inguruan egi-

ten diren Kultur Egunen antolaketa. Urriaren 30 eta 31 eta azaroaren 1, 2 eta 3an egingen dira.

Euskara ikasteko taldeak

EGA mailan ikasteko talde bat izanen da aurtengoz. Orain arte izena eman dutenek klaseak astelehen, astearte eta ortzegunetan, goizeko 8,30etatik 10,30etara izatea erabaki dute. Norbait gehiago interesaturik baldin badago, ordutegia mugitzen ahal dela erran digute. Eskolako gurasoentzat ere hila-bete pare bateko ikastaroa antolatu nahizik dabilta. Momentuan lau edo bertz bertzerik ez daude apuntatuak. nahi duenak hemen ere izena ematen ahal du oraindik.



EKAITZA kafetegia

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13
 ☎ 948 - 62 75 47
LESAKA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mobleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrira eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberriak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - **LESAKA**

ARANTZA

Latasa errekan argindar zentrala paratzeko baimenik ez du eman epaitegiak

Ingurugiro Saileko teknikarien txostenean oinarritu da

ELIXABET ETA GARBINE

Herrian argindar zentrala paratzeko 'Electra Landondo' elkarteak egindako errekursoa ez du ontzat hartu Nafarroako Epaitegi Gorenak. 1992ko irailaren 2an Nafarroako Gobernuak ez zuen Latasa errekan zentrala egiteko baimenik eman eta epaitegiak erabaki hori berretsi du.

Ingurugiro Saileko teknikoen txostenen arabera, Latasa errekan arroan daude Garata, Saguzar eta Apituko ubideetan moldaketak egitea "guztion ondarearen kontrako atentatua da. Gainera, amonarratzen hagitz abersak dira". Inguru horretan dauden harizti ederrak ere aipatzen ditu txostenak.



Ingurugiro arrazoiak aipatu ditu Nafarroako Epaitegi Gorenak Latasa errekan argindar zentrala egiteko baimenik ez emateko

Kultur Astea azaroan izanen da

Arantzari ere bere Kultur Astea dagokio. Egunak ez dira oraindik guztiz zehaztu baina erratan ahal da azaroaren erdialdeko egu-

netan izanen direla. Egun hauek antolatzen Guraso Elkarteak, Ekaitza elkarteak, Gazte Asanblada eta Udala ari dira lanean. Hiru edo lau egunez izanen dira, denak ekitaldi, solasal-

di, ekintza eta hainbetez gauzez beterik, bai haur, gazte eta helduentzako prestatuak izanen omen dira.

Intsumitu epaitua

Urriaren 15ean, astear-

tea, Imanol Iturria herriko lehen intsumitua Iruñeko auzitegian epaituko dute.

Ingeles klaseak

Joan den urtean bezala aurten M^a Jose Arburuak emanen ditu ingeles klaseak. Urriaren 2an egin zen bileren behintzat hori erabaki zen. Oraindik ez da zehaztu noiz hasiko diren klaseak baina laister izanen direla iduri du.

Nafarroa Oinezera autobusa

Gazte Asanbladak urriaren 13an Etxarri Aranazko Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu du. Izena eman nahi duenak lehenbait lehen adierazi beharko dio Gazte Asanbaldako norbaiteri.

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estrukturalak eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS



MENGHINI **AKORDEOIAK**

Gipuzkoarako Delegazio Ofiziala

AKORDEOIAREN GOI MAILAKO AKADEMIA

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

Juan Arana 18, beheka ezk.
Tfnoa eta Faxe: (943) 615055
20302 IRUN


DOMINĒNEA Etxea
San Andres 40
NARBARTE



ROMANO dekorazioak

PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

- Zolak jartzen ditugu:
 - Kortxoak
 - Moksetak
 - Parketa
 - Sintasola
- Gure kolokazio tailerra daukagu
- Komertzioen errotulazioa



Legia 1 • Tel. 631 137-630941 • **BERA**

SUNBILLA

Helduentzako eskulagintza ikastaroa egingen da aurten Udalak antolatuta

Urriaren bigarren hamabostaldian Bidasoako trenari buruzko erakusketa izanen da

IXABEL ETA JOSUNE

Urtero egiten diren helduentzako ikastarotetan berrikuntza izanen dugu aurtengoan, lehen aldiz eskulangintza ikastaroa egingen baita. Izena eman nahi duenak 6.000 pezetako matrikula ordaindu behar du eta gehieneko ikasle kopurua 20 lagunekoa izanen da.

Informazio gehiago nahi izanez gero 450071 telefonora deitu edo Herriko Etxean galdetu.

Bidasoako Trenaren erakusketa

Urriaren 15etik 28ra Bidasoako Trenari buruzko erakusketa egingen da Sunbillan. Bertan, garai bateko argazkiak, tresnak, maketak eta gisako gauzak



Gimnasia ikastaroa Arkupeak-en eskutik

Arkupeak elkarteak antolatua, aurten ere hasiera eman zaio gimnasia ikastaroari urriaren 1ean. Asteartea eta ortzegunetan, 3,30etatik 4,30etara elkartzen dira pilotalekuan. Joan den urteko irakaslea dute eta dagoeneko 24 lagun hasiak dira gorpuzta astintzen. Halere, oraindik norbait animatzen baldin bada, hasteko tenorean dago. Ikastaroa akautzerakoan afari ederra egingen dute, argazkian ageri den bezala.

ikusgai izanen dira. Horretaz gain, urriaren

25ean trenbidearen gaur egungo egoerari buruz-

ko solasaldia eskainiko du Mikel Albisuk.

Bertso afaria

Irailaren 22an bertso afaria ospatu zen Ulibeltzak elkartearen. Angel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña aritu ziren bertso kantari. Trikitilariak ere beraien saioa eskaini zuten. Erran beharrik ez da giro ederra izan zela, jende frango biltzeaz gain, goizaldeko 4ak arte luzatu baitzen afal ondorengoa. Zerbaitegatik izanen zen.

Mus txapelketa azkarra

Urriaren 11n, ortziralean, hasiera emanen zaio mus txapelketa azkarrari. Hau ortziraleroko egingen da, gaueko 10etan, Fondan. Udako atsedendialdiaren ondotik gogoz hasiko dira herriko muslariak.

GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta



LIZUN

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • **DONEZTEBE**



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**

MALERREKA

150 lagunek izena eman dute Doneztebeko musika eskolan aurtengo ikasturtean

Gitarra, pianoa, akordeoia, tronpeta, saxofoia eta txistua ikasten ahal dira

TXEMA ALDABE

Joan den astean hasi zuen Doneztebeko musika eskolak 1996-97 ikasturtea. Aurtengoan 150 lagunek eman dute izena eta solfeoaz aparte, pianoa, gitarra, akordeoia, tronpeta, saxofoia eta txistua jotzeko ikastaroak emanen dira. Musika Eskola hau Doneztebeko udalaren ardurapean dago eta erran, iaz 9.000.000 pezetako aurrekontua izan zuela.



Musika Eskola Doneztebeko Udalaren ardurapean dago eta iaz 9.000.000 pezetako aurrekontua izan zuen

Emakumezkoen pala txapelketa

Zortzi bikote ari dira jokatzeko eskualdeko pala txapelketa. Partaideak, Lesakatik hasi eta Doneztebe, Almandoz, Gartzain eta Erratzu bitartekoak dira.

Lehenik guztiak guztien kontra arituko dira. Azaroaren 9an finalerdiak jokatu dira eta finala, berriaz, azaroaren 16an. Partidu guztiak Doneztebeko frontoian jostatuko dituzte larun-

bat arratsaldetan zuzenbidean, norbait ezina gertatu ezean behinik behin.

Euskara Teknikari lanposturako deialdiaren kontra egin du Langarrak

Irailaren 2an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Malerrekaren Euskara Teknikari bat hartzeko deialdia. Aurkezteko ze-

goen epearen barrenean bederatzi lagunek eman dute izena, baina bat baztertua izan da, eskatutako baldintzak ez betetzeagatik.

Dena den, erran behar da Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bertsioetan –euskarakoa eta erdarazkoa, alegia– agertu ziren iragarkiak ez dira berdinak izan, hau da, euskarakoan gauza bat

agertzen zen eta bertzea erdarazkoan. Ondoren, irailaren 13an agertutakoan zuzenketaren bat egin bazen ere, ez zen guztiz berdina geratu.

Honen ondorioz, Langarra euskara taldeak deialdi hau in-pugnatzea erabaki du irregularitate hauengatik eta deialdian agertzen diren zenbait baldintzak zuzenak ez direlako.

Gurasoendako euskara klaseak

Gurasoendako euskara ikasi eta hobetzeko kanpaina burutzen ari da Nafarroako Gobernuak, IKAK eta AEKK lagundurik. Orduetegi eta maiztasun ego-kiak (astean bi egunez) eta klase atseginak eskaini nahi dira euren seme-ala-bei eskolako lanetan laguntzeko ziurtasun maila bat lortzeko eta hizkuntza bera maitatzen ikasteko.

Honetaz gain, langabezian dauden gurasoei Nafarroako Gobernuak matrikularen erdia ordainduko die. Malerrekaren interesatu guzkiek aski dute beren herriko eskolako mai-su-maistregana jotzea edo euskaltegi-ko 451555 telefono-ra deitzea.

**FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN**



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

MariCruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE



**SANTAMARIA
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

MALERREKA

Zubietan Sendabelar ikastaroa arrakastatsua suertatu da

Ez kongabeen egunean mozorro-dantza izanen da

AINHOA MUTUBERRIA

Irailean hasi zen sendabelarren ikastaroa akitzear dago. Norbaitek sinisten ez baldin badu ere arrunt arrakastatsua izan dela esan beharra dago, gutti goiti behiti hogeitabost pertsona bildu baitira larunbat arratsaldetan herriko terrenoetatik bellarrak biltzeko. Guk beti zer edo zer jakin izan dugu gai honi buruz. Jakina, lehen medikuarengana gehiegi joaten ez zirenez, sendatzeko beste moduak bilatzen genituen. Zein? Naturak eskaintzen digunaren bitartez, sendabelarrekin, hain zuzen ere, egiten genituen kurak.

Horregatik esaten dugu ikastaro hau interesgarria eta baliogarria dela benetan.



Herriko lurretan belarrak biltzen aritu dira larunbatero

Ekitaldiz betetako Euskararen Eguna ospatu da larunbat honetan

Urriaren 5ean Euskararen Egunean ospatu genuen, azken urteotan bezala. Aurtengo edizioan, aldaketa bat izan

da: lehen, gauzez bakarrik egiten zen jai. Aurtun berriz, goiz goizetik hasi dira ospakizunak joaldunekin, he-

rri kirolekin eta bertso bazkariarekin. Gauerako musika, noski. Eguna ongi aprobetxatua, dudarik gabe.

Emakume elkarteak sortu nahi da

Hasiera batean, helduendako ikastaroak antolatzeko eta aitzinera ateratzeko helburuarekin emakume elkarte bat sortu nahi da Malerrekan. Dakizutenez, hemendik aitzinera Nafarroako Emakumearen Institutuak bultzatzen ditu ikastaro hauek eta komenigarria ikusten da Malerrekan emakume taldea sortzea.

Nahiz eta talde hau oraindik sortu gabe egon, artisautza eta jostura ikastaroetarako izena ematerik bazen. Jostura ikastaroa, izena eman dutenek kudeatuko dute, elkarteak sortu bitartean.

ARLA
ARDOTEGIA

Ardoak • likorrak • freskagarriak

Santiago 56 • ELIZONDO
☎ 453266 (etxekoa) ☎ 452473 (bodega)

ALBERTO

Dagoeneko udazken-neguko moda zure esku

ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- Daniel Hechter
- Caramelo
- Island
- Genfis
- Marithe François Girbaud
- Bonaventure
- Replay
- Diesel
- Levi's
- Lacoste

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN

BEINTZAko
OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

muñeca de Trapo

IRUN

Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

ETXANDI
TXOKO
erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

T Hiruhilabeteko xokoa

Argitaratzailea: Leitza eta Goizuetako Euskara Batzordea. Tfnoak: 610636 (Leitza) eta 504400 (Lekunberri)

Maketazioa eta Banaketa: ttipi-ttapa

*Leitza eta
Goizuetako Euskara
Batzordeen
Argitalpena*



Izugarrizko euri jasak eta eguraldi kaskarra egin arren, haur nahiz begiraleak ederki moldatu ziren Beintzako ostatuan lau egun atsegin pasatzeko.

Ikasturte berrian betebetan sartuta gaudela, euskararen berriak komentatzera heldu gara berriz ere. Azken hilabeteotako jakingarriak, bitxikeriak edo hausnarketarako bideak.

Gure azkeneko gehigarria atera zenetik izan ditugu herriotan euskara edo kulturarekin zerikusia izan duten ekintzak: Leitzan egindako euskarazko laburmetrai-lehiaketa (Mikelats taldeak antolatua), Asketa abesbatzak uztailean antolatutako kontzertuak (bi hauek euskara zerbitzuaren dirulaguntza izan zuten), eta irailan egin den orientazio ikastaroa, 24 lagunengatik parte hartzearekin.

Areson eta Aranon, urtero egin ohi den bezala, udarako antzerki lanak ekarri ditugu eta urteroko "ilargipeko zinea" zikloa antolatu dugu. Arano,

Areso eta Goizueta artean euskarazko 10 pelikula ikusteko modua izan dugu, egun ezberdinetan.

Goizuetan, bestalde, orientazio ikastaroa ere egin zen ekainean eta bertan 15 lagunek izena eman zuten. Lau herriotako haurrentzat egonaldi bat antolatu da uztailean, 35 haur inguru bilduz. Izugarrizko euri jasak eta eguraldi kaskarra egin arren, haur nahiz begiraleak ederki moldatu ziren Beintzako ostatuan lau egun atsegin pasatzeko.

Bestalde, gogora dezagun Leitzan irratigintza ikastaroa egin zela eta herriko talde edo elkarte guztiei gonbitea egin zaiela programa berezien bitartez irratian parte hartzeko. Hortik programa bat sortu zen, "Bidegurutzean", eta gonbitea berriz egin nahi dugu talde gehiagok ere irratian parte har dezaten.

Baina kulturekintzak ez dira udan agortzen eta udazkenerako ere prestatzen ari gara beste batzuk: UEMaren bitartez Leitzako eskolan "Artelatzen" taldeak zaborrak biltzeko prozesua azalduko du tailer batean, Miel Mari Elosegik hegaztien migrazioaz hitzaldia eman du eta Gari ere etorriko da bere azalpenak ematera, proiektore batekin eta kanta bat edo besterekin lagunduta.

Goizuetan, bestalde, eta UEMaren zikloaren barruan, bi diapositiba muntaia antolatuko dira: "Euskal pilota jokoa" da bat eta "Zazpi lurraldeetako ton-torrak" bestea. Horretaz gainera, Gontzal Mendibil kantaria ere etorriko da.

Herri bakoitzean, gainera, urtea bukatu baino lehen ekitaldi kulturalak antolatuko dira, oraindik zehaztu gabe badaude ere.

Hori da kultur edo aisialdi ekintzei dagokienera. Gainerakoan, euskara zerbitzuan beste lan edo asmo batzuk ditugu esku artean hilabeteotan: herriotako establezimenduetan (130 inguru dira) merkataritza munduan euskararen erabilera sendotzeko urteroko kanpainarekin jarraituko dugu; euskara zerbitzuak egindako pelikularen banaketa eta aurkezpena egingen da; euskararen erabilerearen kale-neurketa egingen dugu Goizuetan (Leitzan udaberrian egingen zen); haurrentzako aisialdia ere antolatuko da; herriko talde edo elkarte ezberdinetan euskararen egoera hobetzeko prozesua hasiko dugu; UEMan dauden bi udalen barne funtzionamenduaren azterketa bukatuko dugu; Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako euskalkiari buruzko liburua prestatu; famili-giroan euskararen erabilera indartzeko kanpaina; herriotako paisaia linguistikoaren jarraipena eta kontrola ere egingen da; errotuloak euskaraz jartzeko dirulaguntzak eskaini eta gestionatuko dira; inguruko herriotako artxiboen eta ahozko altxorren aberastasuna biltzeko proiektua martxan jartzen ahaleginduko gara...

Horretaz gainera, norbaitek ideia berriren bat edo proposamen bat ekarri nahi badu, atsegin haundiz hartuko dugu. Beraz, animo!

Etxetik Plazara, ttipi- ttapa eta irratiien bidez

Gogoan al duzu TTIPI-TTAPAREN barrenean hilean behin zabaltzen zen ETXETIK PLAZARA ariketa liburutxo? Bai, euskara lan-
tzeko zen hura, bai!!!
Ba... aurten ere antzeko proiektu bat dugu esku artean, baina honetan gure inguruko irratiak izanen ditugu bitarteko, KARRAPE IRRATIA, Leitzaldean, ARALAR IRRATIA Larraunen, XORROXIN IRRATIA Baztan, Malerreka eta Bortzirietan eta GURE IRRATIA Lapurdin, alegia. Irrati saio hauen bidez, besteak beste lerro hauen ondoan ageri direnak bezalako gauzak landuko ditugu:

BEHI HAU AKALDUA DA
Zer esan nahi du?

ERGEL BAT DA
ala
ERGEL HUTSA

SEGITUAN AL
Zer adierazi na

Nola esanen zenuke
"préstamo" euskaraz

Nor gara eta nora goaz

Qrain dela gutxi Areson gizon batek, esan zidan garai batean mixerian bizi zirela baina orain baino zoriontsuago. Orduan ez zeukaten gauza haundirik, baina aurrera ateratzen ziren nola edo hala. Lurra beran eta zerua goian askotan. Jendea, gutxi izateagatik ez zela triste bizi esateb zidan, eta inork ez zuela gustoko herritik kanpo joatea. Nere galdera orduan izan zen ea zerk lotzen zituen bere herriarekin. Erantzuna ona izan zen, "Lurra maitatzen erakutsi ziguten".

Gaur, Areson ez zaigu deus falta. Beharrezko gauza gehienak baditugu,

herrian ez dago langabeziarik, jendea daukanarekin aurrera ateratzen da eta egoera onean aurkitzen gara. Honek ez dauka inongo misteriorik, Nafarroako errenta begiratu ezker. Gainera, gaurko egunetan ez dago, garai batean bezala, ordu asko pasa beharrik edozein tokira joateko, autobiarekin jendea edozein lekura hurbiltzen da azkar eta bide onetatik. Aldaketa honek animatu ditu herriko gazteak eta kanpora joan ziren herri-tarrak, bertan bizitzeko ametsa egia bihurtzea. Aintzinean bezala, ez zaigu kanpora joatea gehiegi gustatzen.


Gainera Areson etxebizitza berriak egiteko asmatan dabilta eta hau pozte-

koa da. Denek ez dute gogo berdina jartzen holako gauzak egiteko, agian oztopo franko ahal dutenean. Baina horregatik ezin dute etsi, hartu eta aurrera jarraitzen dute, noski. Herri gehienetan biztanleak bera doaztenean gure herrian gora doala esan daiteke. Ezin dugu ahaztu inoiz, poztekoa den gauza bat, Areson dauden ume eta gazte pila. Bertan 28 umek ikasten dute 6. ikasturtea arte, Leitzara 8 gazte joaten dira eta Tolosara, berriaz, 10. Hauek dira ikasten ari direnak, gero badi-ra beste batzuk lanean dabilzenak. Aurten bertan 5 haur jaio dira. Honek zer suposatzen du Areso bezalako herri txiki batean? **Etorikizuna.**

Azken bolada honetan, herrian arazo dexente egon dira eskolaren inguruan eta beste zenbait gaietan ere. Eskola umeentzako izaten da eta hauek ezin ditugu erabili pertsona larrien arteko iskanbilen aitzaki bezala, eta gutxiago gure etorkizuna direnean. Herri honen bizia eta etorkizuna.

Beti erakutsi digute adineko pertsonetatik gauza asko ikasi dezakegula, eta egia da, beraiek bizi dute gure aurretik herri honen Historia. Jakin behar dugu nor garen eta, noski, nora goazen, ahaztu gabe zein den gure arbasoek egingutako lana eta guri egitea tokatu zaiguna.

Eli Belaunzarán



EUSKARA

LANDUZ!!

20.

Zenbakia



Araitz-Betelu, Bortziriak, Basaburua, Goizueta- Arano, Imotz, Larraun,
Leitzaldea eta Malerrekako Euskaltegiak



NORK ESPERO ZUEN HORRELAKORIK?

Azken urteetan ikaragarritzko aldaketak ematen ari dira: gure bizimodu, inguru, gure herri, etxe, ohitura, pentsakera, etabarretan... horrela izan da beti eta horrela segituko du izaten, jakina!

Gure euskarak ere, orain arte guztiz berriak ziren egoeratarra moldatu, egokitu behar izan du. Garai batean pentsaezinak, ametsak ziren gauza askotan eta askotan euskara dastatzeko aukera dugu: eskola, hainbat irrati, aldizkari eta egunkari, telebista (kate bat besterik ez bada ere), herrietan ematen diren emanaldi asko, zenbait udaletxe eta banku, etabarretan...

ONGI, OSO ONGI GAINERA!!

Argi ikusten da, beraz, euskaraz orain arte bete izan ez dugun hainbat lanetan jarri behar dugula geure burua. Edo ez al dugu euskara toki, arlo guztietara zabaldu nahi? Ezin ahantzi, ordea, bertako euskarak duen bizitasuna, aberastasuna eta garrantzia. Batez ere, geureari eutsi behar diogu. Gai izan behar dugu edozein kasutan euskaraz mintzatu, ulertu, idatzi eta irakurtzeko.

ETXETIK PLAZARAK horretarako lagungarri izan nahi du.

Edozein adin izanda ere, hilean behin zure hizkuntzaz zerbait gehiago ikasi eta praktikatzeko aukera izanen duzu modu atseginez eta josteta gisa.

Oraingo honetan aldaketa handiak sartu ditugu: arinagoa, biziagoa, ... politagoa. GAINERA Xorroxin, Karrape, Gure Irratia eta Aralar irratietan astero eginen diren irratsaioez osatua.

EUSKARA HIZKUNTZA OSOA IZAN DADIN ANIMATU!!

eta ez ahantzi **XALBADOR** bertsolari maisuak zioena:

“ Izaite bat ez daike hezur hutsez osa,
herria da gorputza, hizkuntza bihotza
bertzetik berextean bitarik bakotxa
izaite horrendako segurra hil hotza”



Euskara ia beti izan da erdararen menpe. Horrexegatik, hain zuzen, kutsatu egin da. Txoko honetan erdarak “zikindutako” euskara “garbitzen” saiatuko gara. Hasiko gara, bada, lehenbiziko lezioarekin.

A.— Etortzen zara gurekin? ----- **GAIZKI**

B.— Etorriko zara gurekin? ----- **ONGI**

**KASU,
EZ NAHASI!!**

A.— EGUNERO joaTEN gara, etorTZEN gara, egiTEN dugu,...(ohitura erran nahi du)

B.— GERO, ISTANTEAN, ORAINTXE joango gara, etorriko gara, eginen dugu,... (oraindik gertatu gabea erran nahi du)

Orain gaizki dauden hauek zuzendu:

1.— Aritzen gara kartetan? (gaizki)

..... (ongi)

2.— Ateratzen didazu zerbeza bat mesedez? (gaizki)

..... (ongi)

3.— Zigarro bat hartzen dizut. (gaizki)

..... (ongi)

4.— Eramaten nauzu etxera? (gaizki)

..... (ongi)

5.— Zer, hasten gara lanean? (gaizki)

..... (ongi)



Lehen, gaur egun erdararekin nahasten ditugun hitz, esaera eta espresio franko euskaraz bizi-bizian erabiltzen ziren. Atal honetan hauek geureganatzen ahaleginduko gara.

1.— ESAERA ZAHARRAK

Bi esaera zahar dituzu hemen marka ezazu gurutze batekin bakoitzaren erranahia:

* “ *Etxeko sua etxeko hautsez estali* ”

- a) Etxeak su hartzen duenean hondarra bota behar da estaltzeko.
- b) Etxeko arazoak denen artean moldatu behar dira.
- c) Etxeko arazoak etxean bertan moldatu behar dira.

* “ *Horrek badu ate adina maratila* ”

- a) Lapur fina da, ate guztiak irekitzen baititu.
- b) Saltsa guztietan sartua dago.
- c) Estutasun eta situazio guziendako badu erantzuna.

SARIRAKO ARIKETA

2.— SENDATU ZURE GORPUTZA ETA ZURE EUSKARA.

Anitzetan erdaraz erabiltzen ditugun hitz hauek, euskaraz modu ezberdinetan erraten dira, guk bat emanen dizugu eta zuk idatz ezazu zure herrian nola erraten den.

Erdaraz	Euskaraz	zure herrian?
chichón	bonboilo
grano	pikor
verruqa	garitxa
almorrana	txuringo
orzuelo	begitxindor
saranpión	elgorria
moratón	ubeldura



Testu honi H duten hitzak atera dizkiogu eta beheitian paratu ditugu. Sar itzazu hitz horiek bere lekuan.

“EZIN JO”

Nafarroa osoan, eta Doneztebe inguruan bereziki, ezaguna da Bordatxo dantzalekua. Eta1..... gertatzen ez denik ez da gertatuko Euskal Herriko inongo dantzalekutan.

.....2..... batean, musika jotzeko talde euskaldun bat kontratatua zegoen. Baina pianojoleari bidean berandu xamar egin zitzaion nonbait eta ...3.... dator lasterka eta presaka. Tresnak sartzeko ate4..... itxia dagoela ikusi du eta jendea sartzen ari den atetik abiatu da. Eta atezainak, jakina, ez ezagutu:

— ...5.... , aizak, nora6.....? Ez duk ba ordaindu gabe sartzea pentsatuko, ezta?

— Baina ez al nauzu ezagutzen? Ez al dakizu ni nor naizen?

— Hi7.... dukena izango haiz baina pagatzen ez baduk ez8.... sartuko.

— Aizu, baina ni jotzera9..... naiz, e!

— ...10.... bertzea! Oraintxe bota ziguk ederra.11..... denak etortzen dituk jotzera!

10.—HARA

.— NAHI

.— HOAIE

.— LEHENGO

.— HELDU

.— HOR.

.— HI

.— HONAT

.— HOR

.— HAIZ

.— HANDIA

Euskara arropa berriarekin jazten!!



Txoko honetan, berriz, orain arte erdaraz egiten dugun hainbat “lantxo” “aktibitate” etab... euskaraz nola egiten diren irakatsiko dizuegu.

Matematiketan denok “ikasle onak” izan bagara ere, bada garaia dakiguna euskaraz egiteko, zergatik ez?

ERAGIKETA (operazioa)	IKURRA (zeinu)	ESAERA	ADIBIDEA
BATUKETA	+	GEHI	$\begin{array}{r} 11 \\ + 9 \\ \hline 20 \end{array}$ Bederatzi gehi bat hamar, buruko bat . Buruko bat gehi bat bi.
KENKETA	—	KEN	$11 - 9 = 3$ Hamaika ken bederatzi hiru.
BIDEREKETA	X	BIDER	$\begin{array}{r} 12 \\ \times 9 \\ \hline 108 \end{array}$ Bederatzi bider bi hemezortzi, buruko bat . Bederatzi bider bat bederatzi gehi buruko bat hamar.
ZATIKETA	:	ZATI	$21 : 3 = 9$ Hogeita bat zati hiru bederatzi.

Beno, ikusi dituzue adibideak ezta? bada...orain zure txanda da. **Saia zaitetz behean dauden eragiketak egiten eta bidenabar zenbakiak nola idazten diren erreparasatuko dugu** (ez bazara zenbakien idazkeraz oroitzen begiratu ETXETIK PLAZARA 2). **Prest al.zaude?**

$$\begin{array}{r} 249 \\ +832 \\ \hline 1081 \end{array}$$

 $75 - 20 = 55$

$$\begin{array}{r} 415 \\ \times 3 \\ \hline 1245 \end{array}$$

 $78 : 3 = 26$



SOLUZIOAK

Hezi zure mingaina!!

- | | |
|---|------------------------------|
| 1.— Arituko gara kartetan? | 4.— Eramanen nauzu etxera? |
| 2.— Aterako didazu zerbeza bat mesedez? | 5.— Zer, hasiko gara lanean? |
| 3.— Zigarro bat hartuko dizut. | |

Aho loreak

- 1.— * Etxeko arazoak etxean bertan moldatu behar dira.
* Estuasun eta situazio guziendako badu erantzuna.

Euskara salda

- | | | | | |
|------------|--------------|-----------|-------------|------------|
| 1.— HOR; | 2.— LEHENGO; | 3.— HOR; | 4.— HANDIA; | 5.— HI; |
| 6.—HOAIE; | 7.— NAHI; | 8.—HAIZ ; | 9.— HELDU ; | 10.— HARA; |
| 11.—HONAT; | | | | |

Euskara arropa berriarekin jazten!!

249 Bederatzi gehi bi hamaika, buruko bat. Lau gehi hiru zazpi gehi buruko bat zortzi.
+ 832 Bi gehi zortzi hamar.
1081

75 — 20 = 55 Hiruretan hogeita hamabortz ken hogeit berdin berrogeita hamabortz.
edo Hirurogeita hamabost ken hogeit berdin berrogeita hamabost.

415 Hiru bider bortz hamabortz, buruko bat. Hiru bider bat hiru gehi buruko bat lau. Hiru
x 3 bider lau hamabi.
1245

78 : 3 = 26 Hiruretan hogeita hemezortzi zati hiru berdin hogeita sei.

SARIRAKO ARIKETA

Sendatu zure gorputza eta zure euskara

Euskaraz	Zure herrian
Bonboilo
Pikor
Garitxa
Txuringo
Begitxindor
Elgorria
Ubeldura

OHARRA: Dakizuenez ariketa baten erantzunak besterik ez dituzue bidali behar (ale honetan 4. orrialdean duzue). Gainerako ariketen soluzioak beti azken aurreko orrialdean jarriko ditugu.

SARIA

Bi pertsonendako afaria

ALE HONETAKO SARIA ERAMAN NAHI BADUZU:

- 1.— Sarirako ariketa egin.
- 2.— Sarirako erantzunak jartzen duen lekura pasatu.
- 3.— Zure datuak atzean idatzi eta betiko lekuetara bidali:
 - * Leitzako Euskaltegia. Leitzako udaletxea (Leitzaldekoek)
 - * Bortzirietako Euskaltegia. Arretxea 22, Lesaka (Bortzirietakoek)
 - * Malerrekako Euskaltegia. Doneztebe (Malerrekakoek)
 - * Goizuetako Euskaltegia. Udaletxea. (Goizueta eta Aranokoek)
 - * Udaletxeko Bulegoa. Balleko etxea. Elizondo (Baztangoek)
- 4.— Guk zuzenduko dugü eta hurrengo ETXETIK PLAZARAN erantzuna agertuko da.
- 5.— Saria, erantzunak bidali dituztenen artean banatuko da.
- 6.— Zozketan, urriaren 28a baino lehen bidaltzen dutenek parte hartuko dute.



Sariaren zozketarako datuak

Izena _____ Abizenak _____
Adina _____
Helbidea: _____ Herria: _____
Telefonoa: _____



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren dirulaguntza jaso
du.



Aldizkari honek Europako
Komunitatearen Batzordearen
dirulaguntza jaso du.

EGURALDIA MENDEBALDU DU

Zer da hau?

Nola idatziko zenuke
data hau euskaraz?
1996-9-30

Patata erosi nahi eta zer eskatuko zenuke?
ZAKU PATATA ala **PATATA ZAKUA?**

N DA
ek?

Zer da
LAKUNTZA?


HORREK EZ DU BATERE TAJURIK!
Zer esan nahi du?

Hauek eta gehiago entzunen dituzue aipatutako irratsaio horietan edo TTIPI-TTAPAKO *Etxetik Plazara* kuadernotxoan.

Noiz hasiko den? TTIPI-TTAPA hartu edo irratia pizten baduzue jakinaren gainean egonen zarete.

Bitxikeriak

- **LEPAKATU:** Metan, meta-ziriaren punta inguratuz belarra edo listorra biribilduta gelditzen denean, gainerakoa hezetasunagatik eta eguraldiaren eraginez erori ondoren.
- **LERGARRI:** Kontu barregarriak esaten dituena.
- **LIMISKATU:** Mingainaz igurtzi.
- **LUR EGIN:** 1.- Dirurik gabe gelditu.
2.- "lur yo".
- **LUZAKETA:** Alperkeria uxatuz, beso eta hankak luzatzea.
- **MADOL:** Elur-zopa haundia.
- **MAKETSA:** Zorrotza ez dena. "Aizkora maketsa".
- **MAKUSTU:** Alkandorakin bakarra jantzita jarri.
- **MAÑE:** Nahi dena lortzeko egiten den negarra. "Mañe besteik ez do aur orrek".
- **MASKILLO:** Larruazalean erreduren ondorioz sortzen diren urez betetako pikorrak. Baba: oinetakoer ukipenez hanketan, lan-berriaren ondorioz eskuetan, sortzen dira.
- **MATERITU:** Zauria materia, zorna dariola jarri.
- **MATILL:** Ate eta leihoak isteko zur puska laukia.
- **MENGELDU:** 1.- Txotxolotu.
2.- Osotara ez mozkortzea, epelduxe egitea. "Mengelduik atera zien osatutik".
- **METAMUTIL:** Arto-metak egiterakoan, lehenengo tente jartzen diren arto-lastoak, gero hauen inguruan gainerakoak jartzen direlarik.
- **MOLDATU:** Konpondu, adostasunera iritsi.
- **MORDOLLO:** "Odei mordolloak". Mendi itxuran pilatutako hodeiak.
- **MOZKOTE:** Motza eta lodia. "Ori mutiko mozkotea".
- **MUKERRALDI:** Haserrealdi.
- **MURRITZ:** 1.- Zimur, diruzale.
2.- Serio.
- **MURRUSK:** Txerriak egiten duena.
- **MUZINDU:** Norbaitekin haserretu.
- **NEKOSO:** Nekea eragiten duena. "Lan nekosoa".
- **NOZITU:** Norberaren edo besteren esan edo ekintzen ondorioak jasan. "Atten alperkerie semek nozitzen due".
- **OIÑEKO:** Luzera-neurria. "30 oñekoetara yokatuko due apustue".
- **OKASIO:** Liskar, tirabira, haserrealdi.
- **OLABEARRA:** Patu, sinu: berria den gertakaria denean. **ALABEARRA**, aspaldiko gertakaria denean. "Ori olabearra! Gaztain gañetik eroritte bizkarrezurre autsi omen do".
- **OLTZA:** Oholezko pareta.
- **ONONTZATU:** Ekarri, honerago etorri.
- **ORBERA:** Animaliak, nekeagatik eta hankak egosiak iza-teagatik urgunka ibiltzea.
- **OSTO:** Edozein landarek duena, artoarena ezik: honi orri esaten zaio.
- **OSPELDU:** Paraje, leku etxe jakina, neguan erabat itzal-pean gelditzea. "Eunek laburtzen asi ditto, ta Goikoetxea negu guziko ospelduko do".
- **PALDA:** 1.- Azalera, hedadura. "Palda ederra ebaki due gaur gue segarik".
2.- ...eta modu hontako beste gauza batzu. "Eurie ta palda ongi gaude artoa yorratzeko".



1897garren urteko Goizuetako ordenantzak

XALBA INDAKOETXEA

Gutxigorabehera orain dela urte bete artxiboek moldatzen eta sailkatzen ari zirela 1897.eko irailaren 26ko ordenantza batzuk agertu ziren euskaraz idatziak. Aurkikuntza garrantzitsua zen, nahiz eta hizkuntza aldetik oso aberatsa ez izan, oso arraroa baita garai hartako euskarazko testurik aurkitzea administrazioan. Bere edukiak ere badu interesa, orduko bizi-modua ematen baitigu aditzera. Puntu gehienetan debekua eta zigortzeko mehatxuak agertzen dira eta hemen agindurik bixienak ikusiko ditugu. Garai hartan laneko gogo

gutxi xamar izanez gero edo soldaduskarik ez bazenuen egin, ezin izango zenuke gaurik pasa ostatu batean, debekatua gelditu baitzen ostatu ematea "...alperrari, desertoreari eta bide gaistoan dabiltzan gende guciari".

Tabernak ixteko orduak ere badu gaur egungoarenkin diferentzi pixka bat, urriaren leetik martxoaren 31 arte gaueko 9etan itxi behar baitzen eta gainerako hilabeteetan berriz, gaueko 10etan. Beraz, oraingo gaupasarik ezin egin.

Gaur egun bezala, orduan ere azkar aberastu nahi zutenak baziren, bestela ez zuten ondorengo debeku hau paratuko: "...guelditcen da debekatua salcea edari galduac

edo mezcla gaiztoequin componduac...".

Inoteetan jendea moztortuta ibiltzen zen baina bazituen gaur egun ez dau den betebeharrak, "...careta edo máscara quendu biarco du avemari ezquilla jotcen dan becain pronto".

Gainera ezin zen edozein erropa jantzi, "debecatua guelditcen da eramatea edo ibiltzea Magistraduan trageac, Apaicenac, Militarrenac edo beste edocin uniformeac". "Modu berean guelditcen da prohibutia o debecatua moztorroac eramatea armac". Hurrengo hau ere nahiko bitxia da, ematen den arazoia nik behintzat ez dut sekulan entzun: "Modu berean guelditcen da debe-

catua ezquillaric jotcea trumoya edo tempestaderik dan demboran, bada probatua dago mesede eguin biarrean calte eguiten duela cergatican ezquillaren soñuac ecartcen duen beregana chimista".

Udaletxeak jartzen zituen bando edo paperak ere badirudi ukiezinak zirela: "Debecatua guelditcen da atzaparric eguita, quentcea edo ciquintcea bando, aviso edo beste paperic oficialic Autoridadeac jarcen duenic leku publicoetan".

Bertaco behartsuak eskuan ibiltzeko baimena eskatu behar zuten udaletxean eta kanpokoek berriz ez zuten bertakoen eskuzabaltasuna eta borondatea probatzeko zortetik, izan ere "...debecatua dago pobre campotarrac limosna escatcea erri ontan".

Buruko gaixotasunen bat zuena ere ezin zen bakarrik irten kanpora, zeren beldur ote ziren? "Debecatua guelditcen da eroen edo burutic nahastuac dabiltecan ayen encargatuac utci ditzaten eroac libre cale edo parage publicoetan berac baldin gañean ez baldin badaude".

Agindu hauek betetzen ez zituenaren zigorra pezetan batetik hamabostera artekoa zen eta gainera egingandako kalteak ere ordaindu behar zituen. Errudunak ez bazuen nondik ordaindua pasa behar zuen duroko egun bat kartzelan. Eta hoberena bukaeran heldu da: "Denuncianteac edo parte ematen dutenac berac izanen dute edo cobratuco dute denuncia edo multa bacoitcetikirutatic bat,..."

Denak zai egongo ziren norok okerra egin gero salatu eta kobratzeko. Adiskidetasunean bizitzeko oso agindu egokia.

MALERREKA

Iturengo Petrikeneako zelaia erosteko enkantea egin du Udalak

Urriaren 24a baino lehen aurkeztu beharko dira proposamenak

IBAN ISASI

Irailaren 25eko Nafarroako Aldizkari Ofizialeko iragarki batean Udalak etxebizitzak eraikitzeko zuzenduta zegoen Petrikeneako zelaia enkante publikoan jartzeko erabakiaren berri ematen zen. Belagi hau udalarena da, 2.280 m² ditu eta hasiera batean Laguntza Ofizialeko etxebizitzak egitera bideratua zegoen. Hasieran jende aunitz apuntatu bazen ere, gero atzera jo zuen jendeak eta erosle bakarra



Hasierako prezioa 6,3 milioi pezeta

zegoen. Ondorioz, enkantean atera du eta erosten duenak beretzat egokiena dena egin ahal izanen du bertan.

Lizitazioaren hasierako prezioa 6,3 milioi pezetakoa da, BEZa gehitu gabe. Iturengo udalaren idazkaritzan aur-

keztu behar dira proposamenak urriaren 24a baino lehen. Udal bulegoak arratsaldeko 1ak arte zabalik izaten dira. Egun berean, eguerdiko 1,30etan irekiko dira jendaurrean onartutako proposamen ekonomikoak.

Eskaintzak, bi sobre itxiren barnean aurkeztuko dira, eskaintza egiten duenaren izena eta helbidea bertan agertzen direlarik. Enkantea arautzen duten baldintzen plegua interesatuen eskura dago udal idazkaritzan.

Gudari Eguna

Irailaren 27an Iturenen urtero egiten den bezala, Gudari Egun erreibindikati-boa burutu zen. 50 lagun inguruk parte hartu zuten trikitiak alaitutako kalejira-manifestazio batean. Manifestazioaren hasieran komunikatu bat irakurri zen, gaur eguneko borrokarako arrazoiak eta euskal presoen egoera kezka garria adieraziz. 36an Iturenen afusilatua izan zirenei omenaldia egiteko astirik izan zen. Txistuz jotako aurreku batekin eta *Eusko Gudariak* kantatuz bukatu zen ekitaldia.



SAMPI ARAGON



Golf



Caddy

Hementxe ditugu 1997ko modelook
Ekipamendu hobea prezio berdinean

TXAPA eta PINTURA
MEKANIKA

ELEKTRIZIDADEA
GARBITZAILE AUTOMATIKOA

Grua zerbitzua 24 ordutan

Leitzako errepidea • © 450354 / 450759 • **DONEZTEBE**

GOIZUETA

Zaharren Eguna urriaren 20ean ospatuko da

Pilota partiduak izango dira eguerdian.

ESTEBAN AROZENA

Urtero-urtero Umore Ona elkarteak 65 urte-tik gorako herritarrei eskeintzen dien egun haundia hurrengo igandean zortzi ospatuko da, eta gainera aurten inoiz baino programa aberatsagoarekin. Egundian

retako ekintza interesgarrienak aipatuz esan, klubien arteko pilota txapelketaren partiduak jokatuko direla eguerdian. Ondoren, Donostiako Antigua auzoko dantza taldeak bere emanaldia eskainiko du plazan. Hauetako Joxe Lizasok eta Joxe Agirrek hartuko

diete txanda, eta bi bertsolari beteranoren saioaren bukaeran elkartearen bilduko dira bazkaltzera zahar guztiak. Bazkal ondorengo giro beroa erabazituta dago, jubilatuek gain Umore Onan egongo baitira bi bertsolariak eta herriko trikitilariak.

Bertso eskolak hasi du aurtengo ikasturtea

Bertso eskolak irailaren azkeneko larunbatean eman zion hasiera aurtengo ikasturteari, zortzitik hamabi urte bitarteko hamabi ikasle biltzen direlarik, Xabier Legarreta bertsolari aranoarraren gidaritzapean. Dagoeneko bi klase

emanak izateak ez omen du esan nahi ikasleen zerrenda itxita dagoenik. Beraz, larunbat arratsaldetako klasetara joan nahi duen 8 urtetik gorako edozein herritarrentzat irekiak egongo omen dira ikastola zaharreko atak.

Autobus zerbitzua

Irailaren 26az geroztik sakoneko aldatketak izan ditu Goizueta eta Hernani lotzen dituen autobus zerbitzuaren ordutegiak.

Honela, goizeko 7etan, eguerdikoa 2,45etan eta arratsaldetako 4,30etan aterako da herritik. Hernanitik honerako bidea berriz, eguerdikoa 12etan eta arratsaldetako 7etan hartuko du C. Apeztearen autobusak.



Kimaren marrazki bizidunek arrakasta ikaragarria izan dute

TTIPI-TTAPAK aurretik esandako egunetan egiterik ez baldin bazen izan ere, arrakasta ikaragarria izan du Kimaren eskutik zetorren marrazki bizidunen erakusketak. 250 pertsona inguru igaro omen ziren bertatik, eta hauetatik 60 gutxi gora behera, gazteak edo helduak ziren.

ARESO

Iaz baino diru gutxiago ehiza postuengatik

1.710.993 pezeta ordaindu zuten ehiztariak

JUANA M^a SAIZAR

Urteaga inguruko hongoita hiru postuengatik lehengo urtean 1.877.786 pezeta ordaindu zuten ehiztariak eta aurten 1.710.993 pezeta besterik ez. Beraz, inguruko herrietan bezala, prezioa behera doala iduri du. Postu hauen enkantean Gipuzko-

aldeko ehiztariak sartzen dira gehien bat, herriko ehiztariak beraien mendiak baitituzte. Usoa ehiztari elkarteak lau urterako komenioa sinatu du Udalarekin, hiru mendiren aprobe txamendua egiteko. Urtero 300.000 pezeta inguru ordaindu behar ko ditu elkarteak, urte-tik urtera biziaren igoa

era gehituz.

Babes ofizialeko etxebizitzak

Babes ofizialeko etxebizitzaren egoera momentu honetan horrela dago. Azaroa arteko epea dauka terrenoen jabeek lur sailak banatu, markatu edo partzelak egiteko. Epea pasa ondoren nagusiak egin ez



Aurtengoan, helduentzako lore lehorren ikastaroa egingo da lehen aldiz

badu udalaren eskutan geldituko da distribuzio hori. Gogoratu behar da lur sail horien %15a ez dela desjabetu. Udala

eta lur sailen jabeak adostasun batera ailegatu dira eta lur horien zesioa egin dute jabeek.

UEMAk antolatutako kultur ekitaldiak burutuko dira

Zinea, tailerrak, solasaldia eta musika izanen dira besteak beste

JOSEBA AZPIROZ

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) zenbait ekitaldi antolatu ditu hila-bete honetarako. Urriaren 17an, osteguna, goizetik "Artelatzen" taldeak *Etxeko zaborrak* tailerra eginen du eskolan, zaborrak sailkatzen eta erabiltzen ikasteko. Arratsaldeko 8etan Miel Mari Elosegik *Hegaztien migrazioa Euskal Herrian* gaiari buruzko hitzaldia emanen du.

Ostiralean, urriak 18, gaueko 10etan, zinean, *Leitzako Euskara* Batzordeak egin duen *Euskaria* pelikularen aurkezpena burutuko da. Honekin batera, leitzarrek aurreko urteko laburmetrai txapelketara aurkeztutako bi laburmetrai ere ikusi ahal izanen ditugu.

Urriaren 25ean, ostirala, gaueko 10etan eta Udaletxeam, Gari Herzainak taldeko kantantea izandakoarekin, musika aditzez gain sola-



Udal zergak ordaintzeko epea azaroaren 15ean bukatuko da

sean aritzeko aukera ere izanen da. Historia musikala, mahaingurua, abestiak...

Larunbatean azkenik, arratsaldeko 7etan, zinemari, *Euskaria* filmea eta leitzarrek aur-

tengo laburmetrai txapelketara aurkeztutako bi laburmetraiak ikusgai izanen ditugu.

Udalak 35 milioi bilduko ditu zergekin eta ordaintzeko epea azaroaren 15ean bukatuko da

Udalak onartu berria du 1996ko zerga bateratuen errolda (hiri eta landa kontribuzioak, lizentzi fiskala, udal kuota eta kanona). Hauek ordaintzeko epea azaroaren 15ean bukatuko

da. Egun horretatik aurrera errekarguak ordaindu beharko dira. Kontzeptu hauengatik 35.006.031 pezeta kobratzen ditu Udalak (aurrekontuaren %8,45a). Hiri kontribuzioagatik

22.563.122 pezeta, landa kontribuzioagatik 1.705.727 pezeta, lizentzi fiskala 9.299.418 pezeta, lizentzi fiskalaren gaineko udal kuota 1.396.154 pezeta eta kanona 41.610 pezeta.

Gitarranbuelako zabortegia

Gitarranbuelako zabortegiaren arazoz kezkatuak Udalak eskaera bat luzatu du Herrilan eta Babes Zibileko departamentuetara. Nahiz eta Erasote erreka tuboekin hartua egon, azpitik pasatzen denez, zabortegiak urtegi gisa egin dezake. Garai batean (1985. urte inguruan) "Comisaría de Aguas" delakoak obra egiteko asmoa azaldu zuen baina obrei ekin baino lehen legea aldatu eta Nafarroako Gobernuaren esku gelditu zen obra hidraulikoaren arloa. Babes Zibileko teknikoei bertan izan ondoren, arriskua bada goela adierazi dute eta beraien informean horrela azalduko dutela, baina zerbait egiteko, beste departamentuaren batek subentzionatu beharko lukeela. Oraingoz, Herrilan departamentutik ez dute erantzunik eman. Bestalde, aipatzekoa da oraindik ere bertara zaborra botatzen dutenen portaera, are gehiago mota guzietako zaborrak etxe ataritik biltzen dizkigutenean.

**GAZTELU
ITURGINTZA**

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 •
LEITZA



**Hiropraktika kontsulta
zabaldu dugu**

CLAUDE MENARGUES
KIROPRAKTIKA DOKTOREA eta U.S.A.
Espainiako Hiropraktika Elkartearen kide

Madre Vedruna 1, 1. eskal. - 4. ezker
Tel. (945) 23 43 42
01008 GASTEIZ

Urbieta 26, 1. ezker
Tel. eta Faxa: (943) 43 17 60
20006 DONOSTIA



**ZURE ARGAZKIAK
ORDU BATEAN EGITEN DITUGU**

IA 100 URTE KALITATEA ETA
PROFESIONALTASUNA ESKEINIZ

KALE NAGUSA 4 - TEL. ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

BAZTAN

Haurtzaindegia urriaren 14an idekiko da

Ordutegia goizeko 7,30etatik arratsaldeko 5,30ak arte

JOSEBA IGARABIDE

Baztango haurtzaindegia urriaren 14an idekiko da eta sortu berriekin hasi eta 3 urte bitarteko haurtxoak matrikulatu ahal izanen dira. Haurrak zaintzen jontan den urteko langile berak arituko dira, Kristina eta Ana, baina aurren autonomo gisa. Lokala 'medikuaren etxea' gisa ezaguna den egoitzean dago antolatua, gela batean, eta bere mantenimendua Balleko Etxearen esku egonen da.

Ordutegia, berriz, goizeko 7,30etatik arratsaldeko 5,30ak arte luzatu dute, eta prezioa, jakina, ordutegiaren araberakoa izanen da. Inaugurazio ekitaldia ortziral honetan, urriak 11, egingen da.

Moble zaharren konponketa ikastaroan parte hartzeko plazarik gabe

Aldaketa zenbait izan badira ere, martxan daude ikastaro sozio-kulturalak, berriki arte 'EPA ikastaroak' bezala ezagutzen zirenak. Arizkun eta Elbeten hasiak dira eskulangintza ikastaroekin eta baita Elizondon

pintura artistikoa eta moble zaharren konponketa ikastaroak ere. Azken honetan, ordea, jende andanak izena eman zuela eta, zenbait lagun lekurik gabe gelditu da. Itxura guzien arabera, erre-kista haundiko ikastaroa da.



Inaugurazio ofiziala ortziral honetan egingen da, urriak 11.

Dirulaguntzarik ez dagoenez, zenbait ekitaldi ez dira egingen

Ingurugiroarekin lotutako ekitaldiak antolatzeko Nafarroako Gobernuak dirulaguntzarik eman ez duela eta, zenbait ikastaro eta erakusketa bertan behera geldituko dira aurrean. Honela, argazki lehiaketa eta erakusketa alde batetik, eta bederatzigarren edizioa beteko zuen Mikologia Astea ez dira aurrean ospatuko. Sendabelarren XII. ikastaroaren antolaketa, berriz, Balleko Etxeak hartuko du bere kontura.



◆ Santiago Uztarroz

Irailaren 20ko ezohiko batzarrean Oronozko Felix Santiago Ustarrozek hartu zuen UPNko zinegotzi kargua, Begoña Sanzberroren ordez.

◆ Amaiurko Arkua berregina

Harat honat dexente ibili ondok Amaiurko Arkua berriz xutitua dago.

◆ Gartzainen duathloi proba Pilarika egunean

Urriaren 12an Gartzaingo Mendi Duathloien hirugarren edizioa jokatuko da (bizikletaz eta laisterka). Informazio gehiago 28. orrialdean.

◆ Bertso Eskolarako izen emateak

Gutienerako kopurua zortzi lagunekoa izanen da eta izena emateko Xorroxin irrati-ara deitu behar da. Musika Eskola, bertalde martxan dago.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

TELAK:

Forro Polarrak, abrigoak, gonak...

ESKULANETARAKO MATERIALA:

Klase guzitako materialak

MODAKO ARROPA

Konjuntoak, jertseak...

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

M^{te} Dolores Miñana
TOPOGRAFOA
NEURKETA • PLANOAK
Lur neurketak, Luberriak
Plantazioak, etab...
☎ 580143 - 989.445986
Santiago 68, 3. esk. **ELIZONDO**

ERLOJU eta BITXI DENDA
ARRIETA
KIROL TROFEOAK
Tfnoa: 580 445 - **ELIZONDO**

BAZTAN

Gartzaingo Pilarika bestak urriaren 11tik 14ra ospatuko dira

Sorgin afariarekin emanen zaie akabaila astelehenean

Ortzileria 11
Bezpera
6etan koheteak eta ezki-lak bestei hasmenta emanaz. Ondotik, txistulariak karraketan. **9etan** baztan zopak. **12,30etan** dantzaldia GOIURI taldearekin.
Larunbata 12
Pilarika Eguna
11etan ezkilen errepika eta txistulariak. **12etan** prozesioa eta Meza Nagusia Ariztegi auzoko ermitan. Ondotik hameketakoa. **5,30etan** Gartzaingo III. Mendi Duathloia. **8etan** dantzaldia GOIURI taldearekin. Ondotik mutil-dantzak. **12,30etatik aitzinera** gaupasa GOIURI taldearekin. **5etan** bokatak banatuko dira.
Igandea 13
10etan mus txapelketa. **12,30etan** meza urrun bizi diren herritarren alde.



1911. urteko urriari, apezka berria etorri zela eta besta antolatu zuten Gartzainen

Ondotik mutil-dantzak. **Arratsaldean**, 'Popi eta Zaratrako' pailazoak eta haurrendakojokoak, Balleko Etxearen laguntzaz. **Arratsaldez eta gauez**

GOIURI taldearekin dantzaldia. Tartean, mutil-dantzak eta afaria. **Astelehena 14**
11etan futbol partidua. **2etan** zikiro-jatea. Ondotik

mus txapelketako sariak banatuko dira. Ilunabarrean dantzaldia MODESTOrekin eta tartean, mutil dantzak. Goizaldean, beste akabaila emateko, sorgin-afaria.

Harrizko paretara egin dute Oronozko Diputazioko etxeen parean

Josu INZARTE
 Herriko aldatzekin segituz, orain dela gutxi harrizko paretara bat egiten ari dira Diputazioko etxeen parean, lehengo alanbrea ken-

duz. Lau urte zeraman bertako alkatea, Florentino Goñi, obra hau egiteko asmoarekin, herriko itxura hobetzeko. Azkenean, Nafarroako Gobernuko He-

rrilan sailak Elizondoko Poxkonea enpresari eman dizkio lanak. **Aurrekontua** 3.281.131 pezetakoa da. 118 metro luze izanzen du paretak, metro

erdi zabal eta 0,80 metroko altura. Paretaren erdialderara ataka bat irekiko da, eta errepidean atakaren parean, oinezkoendako pasabide-marrak egingen dira.



- ❖ **Kirol kluba Gartzainen**
 Mendi bizikleta, laisterketa eta gisako probetan parte hartu eta antolatzeko asmoarekin kirol kluba sortu nahi da Gartzainen. Fitxak eta entrenamenduak ere bertatik bideratuko liriteke. Ekimenean parte hartu nahi dutenek deitu 580813 telefonora, urriaren 12an egingen den bilerrako gelditzeko.
- ❖ **VI. mendizale helduen Itzulia**
 burutu da igande honetan Baztanen. 50 urtetik goitiko partehartzaileek 11'5 kilometroko ibilbidea zuten egiteko, ArizkUNETIK San Cristobal ermitan goiti Soalar mendira igo eta Xorroxingo ur jautzia eta Gorostapolo auzoen barna berriz ArizkUNERA itzuliz.
- ❖ **Arraiozko frontoiaren**
 izena Ariztialde da eta ez Ariztiberri, azken alean aipatu genuen bezala.

JATETXEA
 Tfnoa: 580101
 Santiago 1
 ELIZONDO
Galarza

MENDI OSTATUA
 Santiago 25 - © 580313
 ELIZONDO

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur
 ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
 GETARIAKO TXAKOLINA
 Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
 M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
 © 58 02 78

ERTZILLA
ALBAITARITZA
KONTSULTA
 Txakur eta katuendako
ORDUTEGIA
 10etatik 1etara eta 4etatik 2etara
 Larunbatetan 10etatik 1etara
 Santiago 30, © 580627
 Larrialdiak: © 580762
 ELIZONDO

BAZTAN

Patinatze eta tenis eskolak martxan izanen dira denboraldi honetan

Urriaren 19an hasiko da lau urtetik goitikoei zuzendutako patinatze ikastaroa. Izen ematea urriaren 14abaino lehen egin behar da eta ikastaroa ekainean akituko da. Izena emateko Elizondoko Kultur Etxera joan behar da eta urte osorako 5.000 pezetako matrikula ordaindu. Klaseak Baztan frontoian emanen dira, astean egun batez. Ins-kripzioa egin duten guziek urriaren 19ko goizeko 11etan egon behar-

ko dute frontoian.

Bertzalde, tenis eskola ere izanen da azaroaren 6tik abenduaren 18a bitarte. Bortz urte-tik goitiko neska-mutielei zuzenduko zaie. Izen ematea Kultur Etxean egin behar da urriaren 14a baino lehen, 1.500 pezeta ordainuz. Klaseak ikiroldegian emanen dira astean ordu bete eta izena ematen dutenekazaroaren 6an arratsaldeko 3,30etan kiroldegian egon behar harko dute.



Elizondoko Feriak urriaren 25 eta 26an

Ohidura den bezala, San Lukas egunaren hurrengo asteko ortziral eta larunbatean izanen dira Elizondoko Feriak. Ez da animaziorik faltatuko.

ZUGARRAMURDI

'Interreg' en Bigarren Kongresua burutu zen irailaren 27an

Inguru honi dagokionez, Xaretak hiru proiektu aurkeztu zituen

MARGARI ETA KORO

Gan den irailaren 27an Zugarramurdin ospatu zen 'Interreg 2. Kongresua'. Bileran parte hartu zuten mugaz gaindiko ordezkariak (Nafarroa, Euskadiko Elkarte Autonomoa, Aragoi, Katalunia eta Frantzialdeko Pirinioetakoak ere). Biltzar honetan nazioarteko proiektuentzat dirulaguntza eskaerak aurkezten dira. Gure lurraldeari dagokionez, Xaretak hiru proiektu aurkeztu zituen. Alde batetik ingurunea egokitzeke 34 milioi pezetako aurrekontua aurkeztu zuen. Honekin Zugarramurdiko lezeak moldatu, Urdazubiko lezeen ingurunea hobetu

eta Sarako lezeen ingurunearen inpaktua aztertuko da. Bertzalde, sarbideak egokitu eta informazioa areagotzeko 68 milioi erabiliko dira. Zugarramurdi-Sara nazioarteko zubia, bide seinaleztatzea, lurraldearen mugatzea eta informazio liburuxka eta zerbitzu sailkatzaileak egingen dira honekin.

133 MILIOI PEZETA KULTUR BALIABIDEAK BALORATZEKO

Azkenik, ondare arkitektonikoaren eta kultur baliabideen balorazioa egiteko 133 milioi aurrekontua aurkeztu zen. Dirutzahonekin, Genealogia Ikerketa Etxea Saran, Klostro-Museoa Urdazubiko monastegian eta Txo-



Oсотara 235 milioiko aurrekontua duten hiru proiektu aurkeztu ditu Kongresuan Xaretak

txongilo Antzerki egonkorra eta interpretazio gunea Zugarramurdin sortu nahi dira, Urdazubiko errota be-

rreskuratzearekin batera. Aurkezpena goizean egin zen, frontoneko jatetxean. Ondotik, "Xaretak" erakusketa

stand bat paratu zuen, baita aperitifa eskaini ere. Ez zen falta izan pilota partidarik eta bukatzeko bazkaria.

SARA

Zazpiak Bat elkarteak dantza eta musika ikasgaiak eskainiko ditu

Minima Eguna, bertzalde, urriaren 20an ospatuko da

MIXEL ETA JACQUELINE

Zazpiak Bat elkarteak helduentzako dantza ikasgaiak eskainiko ditu ortzirale arratsetan Azkaine eta Senpereko dantzariekin batean. Erakaslea Patxi Perez izanen da. Haurrentzat ere izanen dira dantza ikasgaiak: zazpi urtetik goizetan eta zazpi urte artekoentzat larunbat arratsaldetan.

Elkarteak, txistu eta musika (solfeo) ikasgaiak ere eskaintzen ditu. Elkarte hunen biltzar nagusia, bertzalde, urriaren 11n iragaitekoa da, arratseko 9etan Gazteen Etxean.

Minima Eguna urriaren 20an

Minima Eguna urriaren 20an iraganen da eta



Gaztetxoek ere parte hartu zuten Fandango lehiaketan besta astelehenez

Argazkia: J.P. LEMOINE

egun hori nola pasatuko den larriki aipatuko dugu. 10'30etan Meza nagusia Sarako kantariekin. Tenore berean luzeko partida. Eguerdian dantzak eta jauziak

Zazpiak Bat herriko taldearekin eta ondotik aperitifa, musikariak lagun. Larrazkenari eta egun horri zor zaion bezala, Sarako ostatuetausoaren jakitzeko para-

da ezin hobea ukanen duzue. Eta Etxepare medikuak zioen bezala "jaki onaren jakituz jaten jakinen" duzue, agian! Arratsaldeko 4etarik goiti herri kirolak.

Pilota eskolako iragarkia

Esku hutska: asteazkenetan 2etarik goiti, 6 urtez goitiko haurrentzat.

Joko Garbi: igandetan 10etarik goiti. Arduradun: Jean Michel Jauregi.

Pala: neskentzat, ortziraletan 5,45etarik goiti. Arduradun: Peio Arotzarena eta Philippe Pignet.

Aktibitate horiek guziaz polikiroldegian iragaiten dira.

Musa

Euskal Herriko Egin mus txapelketari doazkion kanporaketak Herriko Etxeko edantegian jokatuko dira urriaren 26ean, arratseko 9etan.

Berri txarra

Besta ondoko ortzegunear Marcelle Bergara bat batean zendu zaigu. Manex Bergarak bere familiarekin "eskerrik be-roenak bihurtzen ditu bihotzaren zolatik, gogoz, lorez, nola ototzez bere doluan parte hartu duten guziet".

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutzak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beziitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo (Bergara auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • **ELIZONDO**

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENZIA

■ **Zurich Aseguruak**

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bitzta aseguruak

■ **Lan aholkularitza**

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ **Aholkularitza fiskala**

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ **Inmobiliaria**

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ **Gestoria**

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxe: 580804 - ELIZONDO

EZKONTZAK

Jose Manuel Martiarena Urrutia eta **M^a Gema Urrutia Argarate**, Elizondo eta Azpilkuetakoa, irailaren 15ean.

Martin Arraztoa Mendikoa eta **M^a Cruz Aleman Goñi**, Iruritakoak, irailaren 14an.

Jose Antonio Narvaez Esain eta **Miren Edurne Fagoaga Oiaregi**, Eltzaburu eta Ituregoa, abuztuaren 31n.

Phillippe Sallaberri eta **Michele Zunda**, Senperekoa eta Sarakoa, buruilarren 21ean.

Jean François Mentaberri eta **Eliane Errandonea**, Baionakoa eta Sarakoa, buruilarren 21ean.

Edouard Countant eta **Elisabeth Agirre**, Ricourt eta Sarakoa, buruilarren 28an.

Andres Lopez Perez eta **M^a Arantzazu Goia Mitxelena**, Berakoak, irailaren 29an.

Peio Oiartzabal Escudero eta **Cristina Migelena Telletxea**, Oiartzun eta Igantzikoa, abuztuaren 10ean.

JAIOTZAK

Jokin Ezkieta Mendiburu, Doneztebekoa, abuztuaren 17an.

Beñat Abuin Yepes, Lesakakoa, irailaren 22an.

Beñat Etxekolonea Diez, Zubietakoa, irailaren 13an.

Joana Ariztegi Karrikaburu, Zugarramurdikoa, abuztuaren 20an.

Idoia Bertiz Agirre, Berakoa, irailaren 28an.

Sheila Mitxelena Elizondo, Arantzakoa, irailaren 24an.

Joseba Bertiz Etxarte, Igantzikoa, irailaren 11n.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA** 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO** polit bat oparitzen diegu. Amendako **"Está creciendo"** liburua daukagu.

IRUNEN KULTURA

HERIOTZAK

Carmen Colau Marrodan, Doneztebekoa, irailaren 25ean, 96 urte.

Jose Gaztañaga Baraibar, Leitzakoa, irailaren 19an, 82 urte.

Juan Agerrebere Bertiz, Arraiozkkoa, irailaren 24an, 89 urte.

Janine Bats, Gartzainen, irailaren 25ean, 61 urte.

Eustaquio Rekarte Duhalde, Erratzukoa, irailaren 30ean, 82 urte.

Quentin Guijarro, Sarakoa, buruilarren 29an.

Micaela Barberia, Aresokoa, irailaren 23an, 86 urte.

Gregoria Etxenike Petrirena, Sunbillakoa, irailaren 26an, 91 urte.

AROZ-BERRI, S.A.

121-B errepidea, 54. km.a / 31730 IRURITA / Tfnoak: 948-581021 / 580258

Leku menditsuan erabiltzeko traktorea erostekotan bazabiltza, begiratu lehenik ba ote duen:

- Balaztak (frenoak) 4 gurpiletan olio-bainuan
- Esku-balazta independientea olio-bainuan
- Blokeoa 4 gurpiletan
- Martxa ugari, arras abiadura llaburretatik arras luzeetara
- Martxa-alderanzgailu sinkronizatua
- Martxa aldatzeko palanka bolantearen saihetsean
- Bolante erregulagarria
- Bi cardan-giltzadura eta sinkronizazioa trakzio-gurdirako
- Balazta hidraulikoa erremolkearentzat
- Salmenta ondoko zerbitzu profesionala
- Zerbitzu adeitsua eta azkarra ordezko-piezak eskuratzeko
- Erran dizuten potentzia egiaz baduen edo exageraziotan dabilzan
- Kalidade-prezio arteko harremana egokia den



MODELO BERRIAK

30 eta 160 arteko zaldi-potentzia dutenak

Eskatu informazioa gustora atendituko zaitugu horregatik loturarik sortu gabe

20 urteko esperientziak SAME traktoreak saltzen, gure seriotasunaren berri ematen du

Aipatutako guzia izanen duzu SAME traktoreetan eta bere kontzesionarioan

Zerbitzu-tailer berriak Nafarroan eta Gipuzkoan



SAME 45 ZP enbrage bikoitzarekin 2.375.000 Ptatik. hasita, BEZa barne



Euskara ikasteko eskaintza berezia izanen dute gurasoek

Umearen inguruan hizkuntza indartzea izanen du helburu

‘Etxetik plazara, euskara heldu da’ izenburupean eginen den kanpainarekin euskara ikasteko eskaintza berezia eginen zaie gurasoei, familia giroan, bai eta umearen inguruko egoera guztietan ere, euskara indartzeko asmoarekin.

Ekimen honen antolaketan Baztan Balleko Etxea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Leitza-Larraun-Ultzamako Euskara Zerbitzua, Malekako mankomunitateak eta Sakanako mankomunitateak parte hartu dute, AEK eta IKA euskalduntze erakundeak eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

Kanpaina hau, udazkeneko udaletako Euskara Zerbitzuek antolatzen duten transmisio kanpainaren gisakoa da. Bertez urteetan kanpaina familiaren bar-

neko hizkuntza transmisio edo emate hutsean oinarritu bada ere, jogan den urtean, hizkuntza emate soilean ez ezik umearen inguruko egoerei ere garrantzia ematen hasi zitzaion. Aurtentzen, iaz hasitakoari segida emateko asmoa dago, transmisioaren ideia gainditu eta familia eta plaza giroa kontzeptuan gehiago sakonduz.

FAMILIA GIROKO ERABILERA BULTZATU

Kanpaina honen antolatzaileen ustez, herriotako errealitatea da haurrei orokorrean euskaraz egiten zaiela eta transmisioa betetzen dela. *“Agian, kezka garriena familia giroko erabilera da, guraso eta bertze helduen arteko erdararen erabilera hain zuzen ere, haurrak honetaz jabetu eta bere eragina jasotzen baitute”.*

Hau dela eta, egitasmo honen xedea *“gurasoei ikusaraztea euskara seme-alabei etxean modu berezkoaz emate soila ez dela aski, umeak helduen mundua baitu eredu, eta inguruko egoera guztietako erabilera hauek eragina handia dutela umearen mintzaeran”.*



Berako Lurraren Egunkari hamargarren edizioa beteko du urriaren 27an

Urriaren 27an burutuko da Berako Lurraren Egunkari hamargarren edizioa eta horretarako ekitaldiz betetako egitaraua prestatu dute Gure Txokoa elkarteak, Berako guraso elkarteak, Bortzirietako euskaltegiak eta Erausian gazteen euskara taldeak, Udalaren babespean.

Goizetik Berako trikitixa eta Zangotzako Rocamadortaldeko dantzariak arituko dira giroa bertzen. Urtero bezala, eskulangileen eta barazki erakusketa, Bortzirietako produktuen salmenta eta gasna lehiaketa izanen dira. Lehiaketarako gasnak goizeko 10ak bai-

no lehen egon beharko dute Ricardo Baroja eskolan eta bakoitzaren truke 1.300 pezeta ordainduko da. Lehen saria 20.000 pezeta eta oroigarria, bigarren saria 12.000 pezeta eta hirugarrena 7.000 pezetakoa izanen dira. Sari banaketa arratsaldeko



5.30etan eginen da Altzateko plazan. Arratsaldean, gainera, eskulangileen erakusketak segituko du eta taloak eta sagardoa banatuko dira.

Egunari akaberarekin batera, erakusketa, arratsartean punta-

puntan dabilen Gozategi trikitixa taldearekin dantzaldia izanen da Altzateko plazan.

Etxetik Plazara argitalpenaren ale berri bat plazaratu da

TTIPI-TTAPAREN ale honekin batera Etxetik Plazara argitalpenaren ale berri bat duzue esku tartean. Euskara lantzeko baliogarria izanen zaizue hilabete behin mendialdeko euskaltegiek plazaratzen duten liburuxka hau.

Oraingoan gainera,

ariketak aldizkarian egiteaz gain, inguruko irratien bidez egin ahal izanen dituzu, *Etxetik Plazara* saiok izanen baitira Leitzaaldeko Karrape Irratian, Larraungo Aralar Irratian, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Xorroxin irratian eta Lapurdiko Gure Irratian.

BAZTAN FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

SAS KAITZ
fontanería calefacción
GA
Empresa colaboradora de
REPSOL
AUTANO
**Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

SOULE
Gurutze eta hilarriak
© 453038 ARIZKUN
© 123572 IRUÑA

40 pilotarik hasiera eman diote lau t'erdiko pilota txapelketari

Final zortzirenetarako txartela zortzi pilotarik eskuratua dute, gainerakoek eskailera sistemaren bitartez jokatu dute

Aste ondar honetan hasiera eman zaio lau t'erdiko pilota txapelketari. Berrkiuntza bezala, aurtengoan 40 izanen dira parte hartuko duten pilotariak eta final laurdenak bitarte eskailera sistemaren bitartez jokatu da. As-teburu honetan Mikel Goñik Irazolaren kontra jokatu du, Olaizolak Tolosa IIIren kontra eta Errandonea II eta Tabernak elkarren artean neurtu dituzte indarrak. Eskaileren bigarren mailan Salaberria arituko da, Olaizola eta Tolosaren arteko irabazlearen kontra. Eskailera buruan zortzi pilotari daude, Nagore, Retegi II, Beloki, Errandonea, Eugi, Arretxe, Titin III eta Unanue. Hauek final zortzirenetan arituko dira, horreraino ailegatzeko diren kontra.



Errandonea I eta argazkietan agertzen ez den II., Retegi II, Salaberria, Olaizola, Taberna eta Goñi II izanen dira eskualdeko ordezkariak aurtengo lau t'erdiko pilotaren txapelketan

Ultzama eta Arraiozek irabazi dute Nafarroako herriz herri txapelketa

Ultzama eta Arraiozko taldeek eskuratu dituzte Nafarroako gizonezkoen lehen mailako Herriz Herri txapelketako bi txapelak, irailaren 22an Arutuzen jokatuako azken jardunaldiaren ondotik.

Lehen konbinatuan, lehia gogorra izan zen Etxauri Harana eta Ultzamako ordezkarien artean, baina azken hauek lortu zuten garaipena, 16 minutu eta 14 segunduren ondotik. Etxaurikoek 29 segundu gehiago behar izan zituzten lan bera egiteko.

Puntuak jokatzen den proba konbinatuan berriz, arraioz-tarrak nagusitu ziren, aitzinetik jokatuako lau jardunaldietatik hirutan gertatu zen bezalaxe. Bigarrena Ultzama suertatu zen, nahiz eta sailkapen orokorrean hirugarren postuan gelditu.

DUATHLOIA

Gartzaingo Mendi Duathloiaren hirugarren edizioa Pilarika egunean burutuko da

Urriaren 12an, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera burutuko da Gartzaingo Mendi Duathloiaren hirugarren edizioa. Partehartzaileek bost kilometro laisterka, hamalau bizikletan eta azkeneko bi kilo-

metro t'erdia berriz laisterka egin beharko dituzte.

Izen emateak proba baino ordu erdi lehenago egin daitezke edo bertzenaz, 580813 telefonora deituz (Patxi Peñã Roman). Sariak izan-

nen dira lehen hiru postuetan sailkatzen direnentzat, lehen hiru herritarrentzat eta lehenbizi ailegatzeko den emakumearentzat.

Antolatzaileek adierazi dutenez, proba hau Nafarroako partehartzaileei zabaldua dago eta datorren urtean, Gartzaingo ospatu daiteke Nafarroako Duathloi txapelketa nagusia.



Hamabostaldiko Jokaldiak



Iruritako jubenil mailako laxoa taldeak.

Irurita B taldeak jubenil mailako laxoa txapelaren jantzi zuen, irailaren 30eko Doneztebeko finalean oitzarrei 9-5 irabazi ondotik. A taldeak berriz hirugarren postua eskuratu zuen, Doneztebe A taldeari 9-4 irabaziz.



40 pilotari lau t'erdiko txapelketan.

Nahiz eta pilotari aunitzeri aukera bat eman, sobera dirudi honelako kopurua aritzea txapelketa batean. Asegarcek puntuazio sistema berri bat ezarri nahi omen du eta horregatik egin du gisa honetako txapelketa.

GAU PASA

ETXALAR

Urriak 19 • Larunbata • 22,30etan



**Potato
Koma
J.F.K.** (Lesakakoak)

DANTZALDIA: **Urrats**

Sarrera
800 Pta.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.800 pza.
- **Zerri gizona** (95-100): 203-204 pza/kilo
- **Zerramak**: 140-145 pza./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**:
- **Idixkoak**: Pza/kg. Kanal
Extra 530-550
1.koa 520
2.koa 490

- **Urruxak**: Pza/kg. Kanal
Extra 540
1.koa 530
2.koa 500

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 19.000 eta idixkoak 25.000 - 27.000 Pza.

Mestizoak: urruxak 27.000 eta idixkoak 40.000 Pza.

- **Behi zaharrak**:
Behi nabar gizona: 350 Pza./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 410 Pza./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE



HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

Bidasoako Trenari buruzko erakusketa

Urriaren lehen egunetik 13a bitarte zabalik dago Beti Gazte elkartearen Bidasoako Trenari buruzko erakusketa. Argazki zaharrrak, txartelak, geltokietako maketak eta tresnak ikusgai daude, bertzeak bertze. Gainera, trenaren historiari buruz solastu zen urriaren 4an Juan Jose Martinena eta urriaren 11n, 'Trenbidea gaur' gaia jorratuko du Mikel Albusuk. Bidasoako Trena 1916. urtean abiatu zen lehen aldiz eta 1956an egin zuen azken bidaia. Erakusketa, Sunbilla (urriaren 14tik 27ra), Elizondo, Doneztebe eta Berara eramanen da urte bukera bitarte. Solasaldiak ere izanen dira herri horietan.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

GARTZAIN

► **Urriaren 11tik 14ra** Xehetasunak 23. orrialdeetan.

SOLASALDIAK

BERA

► **Urriaren 10ean** arratsaldeko 7,30etan, Gure Txokoa elkartearen 'Euskararen historia Nafarroan' hitzaldia emanen du Mikel Zalbidek.

LESAKA

► **Urriaren 11n** arratseko 8,30etan Beti Gazte elkartearen, 'Bidasoako Trenaren gaurko egoeraz' arituko da Mikel Albusu.

LEITZA

► **Urriaren 17an** arratseko 8etan Zinean Miel Mari Elosegik 'Hegaztien migrazioa Euskal Herrian' gaiaz hitzeginen du.

OSPAKIZUNAK

SARA

► **Urriaren 20an** Minima Eguna ospatuko da. Xehetasunak 25. orrialdean.

KONTZERTUAK

BERA

► **Urriaren 13an** eguerdiko 12,45etan Jose Ignacio Martinez Zabaletaren organo kontzertua elizan.

KATTU

ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak

© 627573 • LESAKA

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bittiria, 67 - © 637264



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • © 580562
IRURITA - BAZTAN

Sukalde eta Bainu Mobleak

Egoki-ren banatzaile
baimendua



JAKIN BEHARREKOAK

Elektrogailuak eta ozono geruza: elkar ulertzerik bai?

Ozono geruzarako kaltegarriak diren osagarriak 1930. urteaz geroztik erabiltzen dira eta ordutik honat gas hauetako milaka Tona bota dira atmosferara. Gas hauek desagiteko urte aunitz pasatu behar dira eta izpi ultramoreak sartzea eragozten dute.

1995. urtean Artikoaren gainean dagoen ozono geruza ttitu zen. Orain arte Antartidako zuloetatik solasten zen, baina orain iparraldean arazo bera dago.

Arrazoi ezaren arrazoiak

CFC eta HCFC fabrikanteek ez dute gas hauek egiteari utzi nahi, arrazoi ekonomikoak medio. Ez omen dute, nonbait, hasierako inbertsioa berreskuratu. Halere, produkzioa ez bada gelditzen ez da inor izanen gas horiek erosteko eta produkzioak ez du inorrenzako ezta deustako balioko. Multinazionalak bere produkzioarekin segitzen duten bitartean, gobernuak ez dute sekula eperik jarri



gas hauek desagertarazteko. Gas hauek ez erabiltzea laguntzeko modu bat "elektrogailu berdeak" erostea da. Orain arte erabiltzen ziren gasen ordez hidrokarburoak erabiltzen hasiak dira elektrogailu hauek egiteko. **Greenfreeze** teknologia hidrokarburoak erabiltzen ditu. Modu honetara, energiaren erdia aurrezten da eta kontsumoa bonbilla baten gisakoa da gainera.

Elektrogailu fabrikanteak gai honi buruzko kontzientzia hartzen hasiak dira, hori bai, kontsumitzaileak horretaz jabezen diren neurrian. Estatu espainoleko merkaturan CFCrik ez du-

ten modeloak salgai daude dagoeneko, baina Alemaniako merkaturatik urrun gaudere oraindik. Han, elektrogailuen %90ek isobutanoa erabiltzen dute errefrigerante bezala.

Bertzalde, gaur egun dauden frigorifikoak eta kongeladoreak ordezkatzeko diren neurrian, biltzaile selektiboa eta kontrolatua egitea nahitaezkoa da, dituzten gasak atmosferara ez joateko. Bertzenaz, oraindik urte aunitz pasatuko dira arriskuak erabat desagertu arte.

BORTZIRI ZERBITZU TEKNIKOAK
ESKAINITAKO AHOLKUAK

AGENDA EGUNEZ EGUN

BERTSO SAIOAK

BERA

► **Urriaren 11n** gaueko 10etan, Kultur Etxean Maddalen Lujanbio, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta Iratxe Ibarra. Gai-jartzailea: Andoni Egaña.

Antolatzailea: Berako Euskara Batzordea. Laguntzailea: Bortziritako Euskara Mankomunitatea.

ERAKUSKETAK

LESAKA

► **Urriaren 1etik urriaren 13ra** Bidasoako Trenari buruzko erakusketa egonen da ikusgai Beti Gazteren egoitzan. Bertziko Partzuego Turistikoak antolatua da.

SUNBILLA

► **Urriaren 14tik urriaren 27ra** Bidasoako Trenari buruzko erakusketa egonen da. Bertziko Partzuego Turistikoak antolatua da.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Urriaren 7tik 13ra** Etxalar, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

► **Urriaren 14tik 20ra** Lesaka, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Urriaren 21etik 27ra** Igantzi, Narbarre, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

BORTZIRI
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
Tfnoa: 63 10 91
Iturlandeta, 1 • 31780 BERA

CANAD

Televés

GAMA ZURIKO ELEKTROGAILUEN SALMENTA ETA KONPONKETA

- Frigorifikoak
- Labadorak
- Kongeladoreak...

Eskatu
aurrekontuak
konpromisorik gabe



ttipi-ttapa
urte oso batez
(24 aldizkari)
Ameriketara
bidaltzeak
8.000 Pta. balio du.

Interesatua egon ezkeru, deitu **948-631188ra**

Auoi SAMPI ARAGON

3 Mitsubitsi Labor 2.5.TD,
Citroen Xantia, Ford Escort 1.4 5
atekoa, Seat Ibiza 1.2 5 atekoa,
Opel Corsa D eta bi Seat Panda.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

ANIMALIAK

601 SALDU

Ardi txakurkumeak salgai. ☎ 604624.

Mendiko 12 behi salgai, 8 deretxorekin. Prezio interesgarria. ☎ 510167. Jesus M^a

Ardi-zakurkumeak salgai. ☎ 604624.

50 ardi salgai. ☎ 514187 (eguerditan, 2ak aldera eta arratsean, 8etatik aurrera).

ANIMALIAK

603 EMAN

Bi hilabeteko txakurkumeak oparituko nituzke. Ama arras artzain ona dute. ☎ 610689.

ANIMALIAK

604 KLINIKAK

ALBAITERITZA KLINIKA
Txertoak, analisiak, kirurgia,
pentsuak eta osagarriak
☎ 627660 LESAKA




DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Eraztun bat galdu da Eratsunen, irailaren 7an (larunbata), Estitxu izenarekin. ☎ 510552.

Arantzako Aurreka base-rrian ahari bat agertu da. Faltan somatzen duenak Jose Luis Burgeteri eman diezaiola abisua.



ttipi-ttapa
Ereduak
Amalia ALTU
Ereduak
Kokomiko 90

ADOS

INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

BERA.

- 110 m²ko pisu zoragarria salgai. Kanpoaldera ematen du eta sartzeko prest dago.
- Pisu bat erosi nahi da.
- Etxe zoragarria salgai.
- Bi Duplex berri salgai.
- 200 m²ko bajera komertziala salgai.

LESAKA.

- Bajera bat salgai
- Ardotegia salgai.
- Baserri edo borda erosi nahi da.

ZIGAURE (ZIGA).

- Jauregi-etxea salgai. 15.000 m²ko lur eremuarekin.

IRURITA.

- 140 m²ko etxebizitza salgai, 400 m²ko lur eremuarekin.
- 350 m²ko etxebizitza salgai, 200 m²ko lur eremuarekin.

ELZONDO.

- Pisu haundi bat salgai.
- Pisu bat errentan emateko prest.
- Bajera batzuk salgai.
- Bajera haundi bat errentan emateko prest.
- 400 m²ko bajera salgai.
- Familia bakar eta bi familiendako etxeak salgai.

LEGASA.

- Pisu salgai.

OITZ.

- Txaleta salgai: bi solairu, ganbara, garajea eta 2.600 m²ko eremua.

DONAMARIA.

- Txaleta salgai Igurin auzoan.

Edozein klasetako kontratuak egiten ditugu eta arazo legalak ere zuzentzen dira, abokatua baitugu. Deiguzu konpromezurik gabe.

Telefonoak: 451841 / 908.778653
Parrokia, 5-2. ezk. • DONEZTEBE

DONEZTEBE.

- Pisu batzuk errentan emateko prest.
- Pisu berri batzuk salgai.
- Pisu erosi nahi da.

ELGORRIAGA.

- Pisu salgai.
- Etxe polit bat salgai.
- 3.000 m²ko eremua salgai.
- Bi familiendako etxea salgai.

ITUREN.

- Etxe eder bat salgai.
- Etxea egiteko lur eremua salgai.

ITUREN.

- Pisu berri batzuk salgai.
- Borda edo baserri bat erosi nahi da.

PREMIAZKOAK

- Baserri edo etxea behar dugu zahar-berritzeko. Tokiak ez du inporta.
- Lur eremu pixka bat behar da Malerrekan, behitegia jartzeko.
- Lur eremu pixka bat behar da, tokiak ez du inporta, arbolak landatzeko. Ongi ordainduko da.
- Malerrekan borda erosiko genuke.
- Baztanen borda erosiko genuke.
- Bortzirietan baserria edo borda bat erosiko genuke.

Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

631188

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Behi-esne kupoa (10.476 kilokoa) salgai. ☎ 387087 (eguerdi edo arratsetan).

Esnea hozteko tankea salgai, 250 litrokoa, berri-berria. ☎ 580589.

Belarra higitzeko makina eta **belarra biltzeko makina**, biak traktorearekin ibiltzeko, salgai. ☎ 580589.

Hiru eski-bota pare salgai. 41 eta 43 neurrikoak mendirako eta snowboard egiteko aproposak. Bertzea, 41 neurrikoa, 'Salomon' markakoa eta ski alpinoa egiteko egokia. ☎ 630466 (Jose M^a).

10.000 haritz amerikano salgai Sunbillan. Orain eskatu eta merkeago ateratu

ttipi-ttapa
internet

Hamabostero paperean eta mundu zabaleko ordenagailuetan

<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>
Postontzi Elektronikoa: ttipi@encomix.es

ko zaizue. ☎ 908.617324.

TEX eta ZAGORen komikiak erosiko nituzke. Kolekzio osoa edo banaka. ☎ 627521.

Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. Si bemol. ☎ 630421.

Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. ☎ 637264

(Kontxi).

Trikitixa erosiko nuke, hiru ahotsekoa. ☎ (943) 627335 (gauetan).

Telebista salgai, Grundig markakoa, 25". ☎ 637217.

Amasadora ttikia gasolinazkoa salgai. ☎ 450621.

Bajerarako atea salgai, 2'36 m. altuera eta 2'78

zabal. Muellearekin igotzen dena. ☎ 514182 (Juan Mari).

Pisu digitala ia berria salgai. ☎ 451527.

Arkoizozkailua salgai (1,70 zabal, 0,85 altu). Kristalezko tapa. Ongi dago eta modu onean salduko nuke. ☎ 6107911.

DENETARIK

703 BERTZELAKOAK

Bortzirietan janari manipulatzaile karneta atera nahi duten guztiek lehenbailehen izena eman dezatela Lesakako Izarra okindegian (☎ 637855) edo Kattu ostatuan (☎ 627573).

Estatu eta nazioarteko garraio-titulua, kamioiarekin ibiltzeko, alokatuko nuke. ☎ (943) 625071 (Carlos, eguerdian).

HARREMANAK

801 AGURRAK

Berako Rosi Terentzat: zorionak urriaren 10ean, bere alabaren partez.

Berako Itziar A.ri: Faltsa bat zara.

URTEBETETZEAK

Sail hau dohanekoa da.
Norbait zoriondu nahi baldin baduzu, bidali bere argazkia eta datuak helbide honetara

ttipi-ttapa
Urtebetetzeak Sailerako Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA



Naikari Larralde Juanenea lesakarrak urriaren 4an bete ditu 8 urte. Zorionak!



Andoni Zamorano Aguilarrak lesakarrak urriaren 12an beteko ditu 33 urte. Zorionak!!!



Jon eta Javier Etxebeste Zayas bixki lesakarrak urriaren 2an bete dituzte 3 urte.



Ugutz Zelaieta Fernandez oiztarrak urriaren 17an beteko ditu 6 urte. Zorionak aita, ama, Garaila eta Laurendiren partez.



Beñat San Miguel Galañena arrasatearrak urriaren Sean 6 urte beteko ditu. Zorionak familiaren partez eta hagin hori erortzen den!



Ana Rivas Portela gartzaindarrak urriaren 12an beteko ditu 35 urte. Ongi pasa egun hori eta bazkari ona prestatu 'guretzat'.



Zuriñe Lujanbio Zabala goizuetarrak urriaren Sean bete zituen 10 urte. Zorionak!



Lorea Zabaleta Caballero leitzarrak urriaren 12an beteko ditu 4 urte. Zorionak!



Kevin Vera Saizar leitzarrak urriaren 12an beteko ditu 5 urte. Zorionak zure guraso eta Aresoko familiaren partez.



Aritz Telletxea Etxepare lesakarrak urriaren 16an beteko ditu 5 urte.

Bidaltzen dituzuen argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegoetatik.

BENTA-BERRI

LARRYAREN ETXEA

Ibardingo Gaina • ☎ 948.63 07 08 • BERA

**EGUNERO
IREKIA
DUGU**

**BAITA LARUNBAT
ETA IGANDETAN ERE**

goizeko 9,30etatik
arratsaldeko 7ak arte

Larrazko arropak eta osagarriak
Goi mailako kalidadea eta
aukerarik zabalena
hementxe bertan

Galtzak	20.000 - 25.000 Ptatan.
Txaketak eta Berokiak		30.000 - 75.000 Ptatan.
Boltsak	2.500 - 12.500 Ptatan.
Bidai-boltsak	5.000 - 6.000 Ptatan.
Gerrikoak	1.500 - 3.000 Ptatan.
Karterak	500 - 6.000 Ptatan.
Eskularruak	2.500 - 5.000 Ptatan.

MAVERICK

4x4 *Berria*



ZALAIN MOTOR

☎ 948.631157 - 908.778023

Ubelaldea
BERA

**TELLETXEA
TAILERRAK**

☎ 948.450667
Leitzako bidea
DONEZTEBE



Diseinu berria
Potentzia gehiago
TDI (Intercooler)

*Modeloberriaren
irteera-eskaintza berezia
(Kopuru mugatua)*

USATEGIETAKO IGANDEA



E·T·X·A·L·A·R

1996ko urriak 19 eta 20

Mikel Laboaren argazki, kartel eta materialen erakusketa

LARUNBATA 19

Arratsaldoko 5etatik 7etara

IGANDEA 20

Eguerdiko 12,30etatik 2etara eta arratsaldoko 5etatik 8etara

Kultur Zirkuitzak antolatua

IGANDEA 20

Lesakako Tantirumairu Dantza Taldea

arratsaldoko 5,30etatik 6,30etara

Dantzaldia EGAN BERRIarekin

arratsaldoko 6,30etatik 10,30etara

Antolatzailea:



**Etxalarko
Udala**

Laguntzailea:



**Nafarroako
Gobernua**